



urtekaria
2016



Durangaldea bizi eta ezagutu!

*Toki Garapena, Hondakin bilketa, Gizarte Zerbitzuak,
Euskara, Kirolak eta Kontsumo bulegoa*

ABADIÑO · ATXONDO · DURANGO · ELORRIO
IURRETA · IZURTZA · MAÑARIA · ZALDIBAR

www.mdurango.org



Konturatu orduko iritsi da 2017a. Eta, beraz, iritsi da 2016. urteak utzi dizkigunak gogoratzeko unea. Makina bat kontu izan dira horiek, eta, erreposoa egitean, beste guztien gainetik, hiru emakume datozkit burura: Gurutze Frades, Oihana Azkorbebeita eta Silvia Trigueros. Komunikabide honi esker kazetaritzan hasi berri den kazetari honek mendiaren tontorrean jarriko lituzke Durangaldeko “hiru handiak”, Durangaldeko hiru txapeldunak. Zein baino zein handiagoa. Munduko edozein txokotako triatloi, ironman zein mendi lasterketetan aurkaririk aurkitzen ez duten kirolari finak. Kontatzen hasiz gero, ezinezkoa egingo litzaiguke lerro hauetan beraien garaipen zerrenda osoa jartzea.

Garaipenetik aurrera egingo dut jauzi orain. Izan ere, 2016a erretiroen urtea izan dela esan dezakegu, Durangaldeko hiru txapeldun handik beraien ibilbide profesionalari amaiera jarri baitiote. Maiatzaren 3an 75 urte egin zituen Xabier Amurizak, eta komunikabide honetako lehen langile erretiratuak bat-bateko bertsogintza utziko zuela iragarri zuen. Ondoren, bost hilabete geroago, Pablo Berasaluze berriztarrak praka zuriak, gerrikoa eta takoak eskegi zituen, urte askoko ibilbide profesionalari agur esanez. Eta, azkenik, urtea bukatzeko hilabete eskaz falta zela, Mainer Undak, hamarkada bitan borroka libreko erreferente izan denak, bere kirol ibilbideari agur esan zion.

Nabarmenezko beste hainbat gertaera ere izan dira 2016an eskualdean. Urteko lehen hiru hilabetekoan hainbat plataforma sortu dira gurean, eta urtean zehar indar handia hartu dute. Urtarrilean, A-8ko bidesariaren kontrako plataforma sortu zuten Durangon. Otsailean, berriz, larri gaixo dagoen Gorka Fraile presoaren aldeko plataforma aurkeztu zuten. Eta, martxoan, eskola-jantokietako eredu hobetze aldera, hainbat gurasok Berton-Bertokoa dinamika jarri zuten martxan.

Gai sozialekin jarraituz, abuztu amaieran eta irailean eraso sexistak katean etorri ziren Durangaldera, eta hainbat herritarrek erantzuna eman zuten kalean. 2016ak datu kezagarriak utzi ditu. Datu horien arabera, 2016an 48 bider aktibatu behar izan zuten eraso sexisten aurkako protokoloa Durangaldean.

Arlo politikoan, berriz, merkataritza-gune handien balizko etorrera eta katastroa izan dira eztabaidagai. Abadiñoko Udalak martxoan Muruetako lurra birkalifikatu, eta bertan merkataritza-gune handi bat eraikitzeko asmoa publiko egin zuen. Herrian zein eskualdean eztabaida piztu zen. Hala ere, hau ez da izan ika-mika sortu duen gai bakarra; Aldundiak, 40 urteren ostean, eguneraketak egin ditu Katastroan, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan, eta eguneraketa horiek ere hautsak harrotu dituzte udal askotan.

Eta ANBOTOn zer? Bada, aurtan, irailaren 9an, hamabost urte bete ditugu. Urteurren hau ospatzea ezinezkoa izango litzateke zu barik, irakurle. Beraz, eskernik asko zuri, eta baita kolaboratzaile, informazio emaile, Anbotoren Lagun zein webguneko bisitari guztioi ere. Beste horrenbeste urte elkarrekin ospa ditzagula.

Zorionak eta Urte Berri on.

Maialen Zua Zubiskar Gallastegi (ANBOTOnko kazetaria)

Anboto komunikabideak - DHK
946 816 558 · anboto@anboto.org

anboto 
komunikabideak

Anbotoren lagunak

Lekuan lekuko lagunak

lagunak@anboto.org · Tel.: 946 816 558



Anboto
Komunikabideak



@anboto



@anbotokomunikabideak





A-8ko bidesariaren kontrako plataforma sortu dute Durangon

📍 **Herririk herri** - DURANGALDEA

> **GARRAIOA.** “Turretako A-8ko bidesaria diskriminatzailea eta gehiegizkoa da Durangaldean bizi garenontzat. Santurtzikoen edo Balmasedakoen baldintza berdinak gura ditugu”. Berba horiekin hasi zuen Juan Carlos Poderoso durangarrak, urtarrilean, A-8ko bidesaria kentzea eskatzen zuen plataformaren sorrerako batzarra. Bilerara Durangaldeko

hainbat herritar zein ordezkari politiko joan ziren. Urte osoan zehar, A-8ko bidesariaren kontrako plataformak hainbat ekimen jarri ditu martxan: udaletan mozioak aurkeztu dituzte, auto karabanak egin dituzte...

Era berean, Kexak eta salaketak Facebookeko komunitatearen bidez, A-8ko bidesaria kentzea eskatzeko ekimena jarri

zuten martxan www.change.org webgunean, eta milaka sinadura jaso zituzten. Izan ere, 2016aren hasierarekin batera, A-8ko bidesaria %2,5 igo zutela-eta, hase-re agertu ziren Durangaldeko hainbat herritar.

Bizkaiko Foru Aldundiak, bere alde-tik, 2017tik aurrera Bizkaiko ordainpeko errepedeetan 30 euroko muga bateratua ipiniko duela iragarri zuen ekainean. Beraz, A-8, Hegoaldeko saihe-bidea eta Artxandako tunelak erabiltzeagatik, ez dira 30 euro baino gehiago ordaindu behar. Hala ere, plataformako kideek doakotasuna eskatzen jarraitzen dute.



Muniketa bideko zaintza areagotuko dute

📍 **Herririk herri** - IURRETA

> **SEGURTASUNA.** Muniketako igoeraren hasieran, auzokideek sarritan entzuten dituzte motor hots eta derrapatzeak. “Goma hotsak eta balaztadak entzuten dira; argiak gauetan. Baina, gertutik, lantzean behin sufritu izan ditugu”, adierazi zuten.

Iñaki Totorikaguena alkateak azaldu du badutela horren berri, kexa formalik jaso ez duten arren. Eskumena Ertzaintzarena da, foru bidea da-eta. “Abisua eman dugu, eta zaintza areagotu dutela esan digute, Gernikako ertzaintzeagaz koordinatuta”, esan zuen. Kontuan hartu behar da, Muniketarako errepedea, nagusiki, Zornotza eta Muxikarena dela.

Bateginez elkartean azken ekintza solidarioa

📍 **Herririk herri** - DURANGO

> **ELKARTASUNA.** Bateginez elkarteak amaieran zeukan ondasun guztia (45.000 euro) JAED, Andereak eta Medicus Mundi Bizkaia elkartei eman die. Prentsa ohar bidez azaldu dutenez, euren hurreko sentitzen dituzte hiru talde horiek. JAEDegaz pobrezia-aren aurkako borrokan elkartu zen Bateginez; Andereak taldeak Guatemalako emakumeen eskubide urraketen inguruan jarduteko laguntza eman zien; eta Medicus Mundi Bizkaia Guatemalan emandako laguntza tekniko eta pertsonala handiak izan zirela esan dute Bateginezekoek.



Neguko beherapenak erritmo onean

📍 **Herririk herri** - DURANGO

> **MERKATARITZA.** Neguko beherapenensazioan bete-betean sartuta, lehenengo egunetan ondo saltzen ari zirela azaldu zuen Durangaldeko Dendak Bai elkarteak. Eguraldiaren eraginez, denboraldi “arra-roa” izan zela aitortu zuten Javi Arrieta Sylke dendako jabeak eta Miren Garrastazu Dendak Bai elkarteeko teknikariak. Black Friday-gaz ere kanpaina egin zuten. “Black Fridayk harritu egin nau aurten. Elkartetik horren aldeko apustua egin dugu aurten. Ekimen hauek mediatikoki bultzada handia izaten dute, eta jendeak oso ondo erantzuten du. Erosleak eskertu egiten du”, azaldu zuen Arrietak.



TAO sistema ezarri dute Traña-Matienan

Herririk herri - ABADIÑO

> **MUGIKORTASUNA.** TAO sistema martxan ipintzeko beharrezko prestaketak burututa —seinaleztapen horizontal zein bertikalak, eta bi parkimetroak ezarrita—, urtarrilean ipini zuten Trafiko eta aparkamenduaren ordenamendua (TAO) martxan, Traña-Matienako Trañabarren kalean. 2016ko urrian onartu zuten udal ordenantzak aurreikusten duenez, aipaturiko araudia betetzen ez dutenek 20 euroko isuna jasoko dute (10ekoa isuna ondoko 24 orduetan ordainduz gero).

Ohiko osoko bilkura hartan, Gobernu taldeko Independienteek eta EAJ alderdietako ordezkariak egin zuten Trañabarrenen TAO sistema ezartzearen alde, eta abstenitu egin zen EH Bildu. Sistema horregaz, Traña-Matienan aparkalekuekin dagoen arazoari “irtenbide partziala” ematen zaiola kritikatu zuen EH Bilduk.

Aitor Elordiren jauzia profesioaletara

Kirola - MALLABIA

> **PILOTA.** Afizionatuetan makina bat txapelketa irabazi ostean, profesioaletarako bidetara ekin dio Aitor Elordi mallabitarak Aspegaz. Urtarrilaren 3an Astelenen jokaturako partiduan eman zuen jauzia.



Rojas teknopata eta mirkoipuinen zalea

Akuilua - DURANGO

> **KULTURA.** Joxe Rojas Tokikomeko teknopatak mikroipuinen lehiaketa irabazi zuen. Aizu!, Bilbo Hiria eta Euskadi Irratien kolaboratzen du.

Aitor Bugallo ziklista ohia hil da istripu batean

Kirola - DURANGO

> **ISTRIPUA.** Aitor Bugallo txirrindulari ohi durangarra urtarrilean hil zen auto istripu batean, lanera zihoala. Bugallo 1996tik 1998ra txirrindulari profesionala izan zen Euskadin eta Euskaltel Euskadi taldeetan.



Autogestioaren filosofiak batuta

Herririk herri - DURANGALDEA

> **ANTOLAKUNTZA.** Autogestioaren aldeko Durangaldea autogestiorantz topaketa antolatu zuten, urtarrilean, Durangon. Gaztetxe eta gazte asanbladen eskutik jaio zen ideia, eta autogestioan oinarritzen diren zenbait proiektu ere gehitu ziren.

Abadiño

EROSKI Hipermerkatuak, zurekin.



aurten ere
aurreztu gurekin



EROSKI

ABADIÑO

zurekin



Zezpala, Durangaldean ere Txotx!

📍 **Herririk herri** - GARAI

> **SAGARDOA.** Urtarrilean Garaiko lehen Sagardo Eguna ospatu zuten. Herriarrek egindako Zezpala eta Okiltxiki sagardoak dastatzeko aukera eskaini zuten.

Durangaldeko lagun koadrila batek Zezpala sagardoa ekoizten du Garaiko Etxeita baserrian, auzolanean eta antzinako era naturalean. Aurten, 1.500 litro ekoizti dituzte, eta urtarril amaieran botilaratu zuten. Berehala banatu zituzten ia botila guztiak lagun eta ezagunen artean. Zezpalaren egileak

autodidaktak dira. Irakurri, galdetu, probatu... Etxeita baserriaren bueltan sagarrak landatu dituzte, 25 bat klase.

Autodidaktak

“Klase askotako sagarren nahasketatik irteten da sagardo ona”, diote. Tratamendu kimikorik barik eta sulfitorik barik sortzen dute edaria. Egitasmo honek lagun taldea indartzeko balio izan die. “Batek lana dauka, besteak seme-alabak... honi esker denok batzen gara, afaltzeko edo beharrerako”.



Autzaganeko obrak 2018rako prest

📍 **Herririk herri** - ZORNOTZA

> **MUGIKORTASUNA.** Autzaganeko obrak ia azko uztailetik gelditu dira, Aldundiak enpresa eraikitzaileekin kontratua eten eta gero. Urtarrilean lanak berriro esleitu zituzten, eta Unai Rementeria Bizkaiko ahaldu nagusiak aurreratu zenez, 2018rako amaitzea aurreikusitua dute.



Mañariko Turismo Plana onartu du udalak

📍 **Herririk herri** - MAÑARIA

> **TURISMOA.** Turistak erakartzeko urratsak ematea da egitasmoaren helburua. Historiaz eta ibilbideez informatzeko panelak jartzea, edo atsedena hartzeko gunea sortzea dira ideietako batzuk.



Elorrioko Musika Eskola, 26 urteko ibilbidea

📍 **Herririk herri** - ELORRIO

> **MUSIKA.** Elorrioko Garamenditar Agustin Musika Eskolak 25 urte bete zituen 2015ean. Ospakizunez betetako urtea izan zen bertako kideentzat, eta Rosa Azkarate zuzendariak ibilbide horren garapena azaldu zuen ANBOTOn.

Iratxe Martinez, arrautza ekologikoen ekoizlea

📍 **Akuilua** - GARAI

> **ABELTZANTZA.** Arrautza ekologikoak ekoizten dituen Garaiko abeletxe bateko arduraduna da Iratxe Martínez (Garai, 1975). 3.000 oilo gobernatzen ditu, berak bakarrik. Baserrigiroan hezi ondoren, argi zeukan landa-mundua zela berea. “Ikasketak bukatu ondoren, hainbat lan ezberdinetan ibili naiz. Metalgintza arloan, tailerretan eta supermerkatuetan. Azkenean, baina, baserrigiroa bueltzea erabaki nuen.



Arrierreka, urak emanandako energia

📍 **Herririk herri** - DURANGALDEA

> **ENERGIA.** Oiztik behera eta Berrizko lurretan zehar dator Arrierreka. XX. mendean hamar zentral hidroelektriko eraiki ziren erreka honen inguruan, baita errota eta burdinolak ere. Horietako bat, Olabarri zentral zaharra, Durangoko Udalarren jabetzakoa izan da. Udaltzako saltzea erabaki du.



Berrizko pilota eskola, frontoiko giroa berpiztuz

Kirola - BERRIZ

> **PILOTA.** Berrizen inoiz pilotan ibilitakoen arteko partiduek lagun-giroa eta zailtasuna indartzea dute helburu. Aurten ere, San Anton jaietan bildu dira.

Serranoren argazkiak Bilboko Metroan

Kultura - DURANGALDEA

> **ARGAZKIGINTZA.** Etxebakoei buruzko erakusketa ipini zuen Txema Serranok urtarrilean, Bilboko metroko hiru geltokitan, Bizitegi elkarteagaz kolaboratuz.



Plazako kioskoa umeentzako jolasleku

Herririk herri - MAÑARIA

> **ERAIKUNTZA.** Mañariko aurrekontu parte-hartzaileek proiektu berritzaile bat ekarri dute: plazako kioskoa umeentzako jolasleku bihurtzea. Hori izan da herritarrek, umeek barne, ondorioztatu dutena. Izan ere, prozesua bera ere berritzailea izan da; umeekin tailerrak garatu dituzte, euren nahi eta beharrezan zuzenean ezagutzeko. Gero, herritar guztiei zabalduzako partaidetza dinamikan, kioskoa plazan dagoen jolas eremuaren baitan sartzeko proposamena egin du guraso batek, eta ideiaz bat egin dute partaideek. Ondorioz, ume eta helduen ideiak bateratzea erabaki dute. Udalaren aurrekontu biak ere batu dituzte, umeen proposamenetarako gordeta zeuden 10.000 euroak eta herritar guztien 15.000 euroak, hain zuzen. Partaide batek etorkizuneko kioskoaren maketa landu du.



“03:00etan altxatzen naiz San Blas egunean”

Gehigarria - ABADIÑO

> **JAIK.** Jacinto Iturriagaetxebarria San Blas azokako partaide mitiko bat da. Goiz jaikitzen da egun horretan. Gazteluko baserrian abelburuak prestatu eta azokara eramaten ditu orain 25 urtetik. Azokako giroa berriro ere pizten ari dela dio.

Tanzaniara, mundu berri bat ezagutzera

Akutilua - ABADIÑO

> **KOOPERAZIOA.** Amets Menika abadiñarrak hilabete batzuk pasatu ditu Tanzanian, Serengetiko parke naturalean. Esperientzia “oso intentsoa” izan zela azaldu zuen urtarrileko elkarrizketan.





QHEALTH
Empresa Saludable

Lanak Zoriontasuna ekartzen duenean

Zure langileen zoriontasunean ez aurreztu.
Qhealth Empresa Osasungarriak langileak eremu pertsonal zein lan ingurunean zaintzen ditu, enpresaren ongizate eta errentagarritasuna bermatuz.

Lan arriskuen prebentzioan liderra kontuan izan

www.premap.com



Premap
Seguridad y Salud
PREVÉ LO IMPREVISIBLE

Premap Abadiño
Murueta, 1
UBG BUILDING Eraikina
48220 - ABADIÑO
Telf: 946 812 78

Empresa Saludable



Fraileren aldeko plataforma sortu dute Durangon

📍 **Herririk herri** - DURANGO

> **SAKABANAKETA.** Larriki gaixorik dagoen Gorka Fraile presoaren aldeko plataforma aurkeztu zuten, otsailaren 5ean, Durangon. Dozenaka herritarrek agertu zioten babesa taldeari, Andra Marin egindako aurkezpenean. Plataforma aurkezteagaz batera, Itziar Lasa medikuaren testigantza eskaini zuten antolatzaileek. Izan ere, euren ustez, “espetxeak ez ditu Gorka sendatzeko baldintzak betetzen”. Frailek berak bidalitako

gutun batean adierazi zuen ez ziotela probarik egin ebakuntza egin ziotenetik, duela zazpi hilabetetik. Kezkatuta zegoen, medikuek minbizia birsortzeko arriskua iragarri ziotelako. Frailek 18 urte daramatza kartzelan, eta gaur egun Badajozeko espetxean dago. Fraileren aldeko plataformak presoaren askatasuna eskatzen duen mozioa aurkeztu zuen Durangoko Udalean. Ekimena EA.Jk, EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak babes-

tu zuten. “Egoera urgentea” dela ohartarazi zuen Ane Ortuondo plataformako kideak, osoko bilkuraren amaieran.

Apirilean TAC azterketa egin zioten Badajozeko ospitalean. Ebakuntza egin ziotenean lez, berarenganako jarrera salatu zuen oraingoan ere. Baina, ez poliziaren partetik, medikuaren aldetik baizik. Eskuburdirak ipinita egin behar izan zuen azterketa. Proba horiek dagoeneko minbizirik ez duela azaldu zuten.



Lehior Elorriaga

Tolerantziaren aldeko golak, Betigolen

📍 **Herririk herri** - ZORNOTZA

> **BERDINTASUNA.** Iraide Leginak eta Izaro Antxiak asko dute esateko eta erakusteko. Mutilen gorputzaz jaio ziren, baina txikitatik bestelakoa igartzen hasi ziren; neska sentitzen ziren. Pertsona transexualak dira gizartearen begietara. Duela zazpi bat urte hasi zen Iraideren etapa berria, eta duela hile gutxi Izarorena. Euren bizipenak eta areto-futbolarekiko afizioak elkartu ditu Zornotzako Betigol taldean.



Sabino Arana saria jaso du Leopoldo Zugazak

📍 **Kultura** - DURANGO

> **SARIA.** Leopoldo Zugazak Sabino Arana saria jaso zuen otsailean. “Euskal kulturari egindako berebiziko ekarpenagatik”. Izan ere, “kultur ekintzaile” nabarmena izan da Leopoldo Zugaza: Gerediaga Elkartearen eta Durangoko Liburu eta Disko Azokaren sortzailea izan zen, eta Durangoko Arte eta Historia Museoren, Zarauzko Photomuseumaren, Oleri Etxearen edo Manuel de Larramendi Institutu Bibliografikoaren bultzatzailea ere bai, besteak beste. Bere diskurtsoan, kulturak lairiak behar dituela azpimarratu zuen. “Duela 60 urte baino gehiagotik esaten dihardut: lan ikaragarria dugula kultur arloan egiteke”.

“Mañariaren izena ezagutarazi gura dugu”

📍 **Herririk herri** - MAÑARIA

> **TURISMOA.** Hontza Museoa fundazioko Bego Caballero langileak Mañarian turismoa bultzatzeko proiektua landu du. Caballerok azaldu duenez, “pakete turistikoa eskaintzea da ideia, baina, horretarako, prestatu egin behar da herria”. Merenderoak jartzea, hormetan herriko historia irudikatzea, Urkuletako ingurua berreskuratzea, bisita gidatuak egitea... asko dago egiteko Mañarian.





BI-633 errepidean radarrak jartzeko eskaera

Herririk herri - DURANGALDEA

> **BIDE SEGURTASUNA.** BI-633 errepidean gertatutako auto istripu larriek kezka eragin dute Berrizko eta Mallabiko udaletan. Ereñatik (Berriz) hasi eta Trabakuraino

(Mallabia) hainbat istripu gertatu dira 10 kilometroko tartean. Istripuak saihestu eta bidearen segurtasuna hobetu guran, bi herrietako udalek eskaera zehatzak biderratu dituzte Bizkaiko Aldundira. Abiadura kontrolatzeko radarrak eskatu dizkioite, besteak beste. Trabakuan, lurrazpiko pasabidea eraikitzea ere eskatu dute.

Un otoño sin Berlin-ek Goya saria eskuratu du

Kultura - ZORNOTZA

> **ZINEA.** Lara Izagirre zornotzarraren Un otoño sin Berlin pelikulak Goya sari bat irabazi zuen otsailean, Irene Escolarrek aktore berri onenaren saria lortuta. Izagirre "oso pozik" azaldu da, eta pelikulak osotasunean jasotakoa dela dio. "Pelikulak jaso zezakeen saririk politena da, lan guztia biltzen duelako", adierazi zuen.

Izagirrek emozionatuta egin zuen berba Escolarrek Goya saria jaso zuen unea gogoratzean. "Negar eta negar, horrela egon nintzen saria jasotzerakoan. Galan, izkina batean geunden kokatuta, eta uste nuen ez gintuztela grabatuko". Escolarrekin eskerrak eman zizkion mikrofonotik, eta euren batasun hori nabarmendu du zornotzarrak. "Pelikula hau biona dela esan izan dugu beti", esan zuen.



Idi probetan emakumeak doan

Herririk herri - ABADIÑO

> **BERDINTASUNA.** Ika-mika sortu zen Abadiñon, San Blas jaietako lehen egunean sarrerak doan zirelako emakumeentzat. Jose Luis Navarro alkateak esan zuen ekimena ez zela udalarena izan, eta jakin bezain laster kendu zutela kartela.

Denboraren bankua Sorginola Gaztetxean

Herririk herri - DURANGO

> **EKIMENA.** Merkatuaren eta salerosketaren eredutik aparte, pertsonen beharri zanezi erantzuteko beste modu bat topatu gura izan dute denboraren bankuagaz. Bilbon eta Donostian badaude antzeko proiektuak martxan, eta Sorginolakoak hantxe informatu ziren.





ERROTA
OSTATUA • ATERPETXEA

*Errota ostatu berriztatua
2016ko udatik.... Zure esku!*

Doako wifi konexiodun bederatzi logela berri-berriak, pantaila lauko telebistarekin, komun eta dutxa pribatuak, jatetxea, doako gimnasioa, sauna, ikuztegia, kontsigna, bi padel eta bi tenis pista... zein bezeroentzako aparkaleku pribatuekin.

Errota ostatuak, Durangoko erdigunean, 24 orduko arreta zerbitzua eskaintzen du toki paregabean, lorategirako eta Tabira auzorako ikuspegi ederrarekin.




Intxaurrondo Kalea, 54 DURANGO
errota@errotaostatua.eus · Tel.: 946 216 021



Jubilatuak, sasoiak eta gogotsu

📌 **Herririk herri** - DURANGALDEA

> **GIZARTEA.** Soldatapeko lanegunak amaitutakoan, borondatezko lanera eta elkarteetako saltsara jotzen dute Durangaldeko hainbat nagusik. Jubilatutak aurretik aktiboak ziren, eta orain aktibo jarraitzen dute. Bizipozez dabilta batzarririk batzar, hitzaldietara joaten, irteerak egiten, antzerkia egiten... Inoiz ez delako berandu, eta orain dutelako astia; gauza berriak ikasi, eta lagun berriak egiteko sasoiak da. Jende askok nagusien elkarteetako tabernan, karta jo-

koan irudikatzen ditu jubilatuak. Hori baino gehiago dela azaldu zuten otsailan kaleratutako erreportajeko protagonistek. Juan Angel Aiartzaguenari, esaterako, mendira joatea gustatu izan zaio beti, eta horrelako irteeren antolaketan ibiltzen da gustura. Berrizko elkarteetan ibiltzeaz gain, Bizidun elkarteetan ere badabil, eta han, barikuro egiten dituzte irteerak. Herririk gehienetan daude elkarteak kide berriak eskuzabalik hartzeko prest.



'Herri Txiki' Atxondon eta Zaldibarren bisitan

📌 **Herririk herri** - DURANGALDEA

> **TELEBISTA.** ETB1eko 'Herri Txiki infernu handi'-k Atxondo eta Zaldibar bisitatu zituen. Hainbat atxondarren eta zaldibartarren kontuak batu zituzten Zuhaitz Gurrutxagak eta Mikel Pagadik. Anbotoko Mariren zein Garitazelaia baserriaren kontuak landu zituzten, besteak beste.



'Olatu bat daukat sabelean' ipuina

📌 **Kultura** - BERRIZ

> **LITERATURA.** Miren Amurizak eta Sandra Hernandezek 'Olatu bat daukat sabelean' ipuina aurkeztu zuten, Berrizen. Istorioak negarra eta negarraren inguruko emozioak ditu gaitzat.



Irati Eguren, sormen prozesu berrietan

📌 **Kultura** - BERRIZ

> **ARTEA.** Irati Egurenak 'Dena batuz' ilustrazio erakusketa prestatu zuen Berrizko Kultur Etxean. Hau ez da aurten aurkeztu duen lan bakarra. Miren Amurizagaz batera *Bainera bete itsaso* album ilustratua kaleratu du.



Tabirako biribilgunea zabalik dago trafikorako

📌 **Herririk herri** - DURANGO

> **MUGIKORTASUNA.** BI-623 errepideko saihesbidean ehun bat istripu egon dira azken hamarkadetan. Hiru lagun hil eta hainbat zauritu dira bertan. Tabirako

biribilgunearen sarrera izan da gunerik arriskutsuenetakoa. Tabirako obragaz, biribilgunea errepidera ateratu dute, segurtasuna hobetu guran. Horrela, Alde Zaharrentz joateko, Gasteiz Bidea erabili gura dutenek Ibaizabal ikastola aurreko biribilgunean buelta hartu beharko dute. PSE-EEk aldaketa hori kritikatu zuten iaz.



Brontzezko domina Maria Bazanentzat

📌 **Kirola** - DURANGO

> **JUDO.** Euskadiko txapelketan brontzezko domina irabazi zuen, gazte mailan, Maria Bazan durangarrak. Emaitzagaz gustura gelditu zen. "Hasi aurretxoan, oso ondo sentitzen nintzen. Txapelketa irabazi nezakeela ere sentitzen nuen. Borrokaldietan ere beste hainbeste"



San Andreseko ermita eta txokoa, elizarenak

Herrikerri herri - IURRETA

> **INMATRIKULAZIOA.** Eliza katolikoak 1978tik inmatrikulatu dituen ondasunen artean, Iurretako San Andres auzoko ermita eta txoko edo elkarte gastronomikoa agertzen dira. Nekane Bereziartua San Andreseko auzokideak azaldu zuenez, bere sasoiaren abadeak, mezaoste batean, bere aitari galdetu zion ermita eta txokoa noren jabetzan zeuden. Bereziartuak dioenez, “nire aitak azaldu zion ermita auzotarrek altxatu zutela, eta lurrak auzokide batek bere borondatez emandakoak izan zirela. Nire aitak esaten zuen ez genuela paperik behar, guk badakigula ermita auzokoa dela. Papera baino garrantzitsua goa zen emandako berba”.

Emakumeen Birako kartelaren polemika

Kirola - IURRETA

> **POLEMIKA.** Emakumeen Birako kartelak zeresan handia eman du. Sexista zela iritzita, irudia aldatzeko eskatu zioten lasterketako antolatzaileei. Irudia aldatu zuten arren, erabakiak polemika sortu zuen. Emakundek Anderebideren proposamena babestu zuen. Clara Campoamor elkarteak, berriz, antolatzaileen alde egin zuen.



“Aurten udaberria aurreratzen ari da”

Akuilua - DURANGO

> **EGURALDIA.** Jose Antonio Aranda durangarra Euskalmet meteorologia zerbitzuko arduraduna da. Arandak Madrilgo eski-estazio batean eman zituen eguraldia iragartzeko lehenengo urratsak. Negu leunak ez duela zertan udaberri gogorra ekarri argitu zuen otsaileko elkarrizketan. Udaberria aurreratzen ari zela azaldu zuen Arandak eta “beranduko izotzaldiek min handia” egin zezaketela ohartarazi zuen elkarrizketan.

**EUSKARAZ ETA
BERDINTASUNEAN
BIZI EGUNEZ
EGUN!**

**berrizko
UDALA**

**BERRIZKO
UDALA**

Tel.: 946 824 036
www.berriz.eus



Eskola-jantokietako eredia hobetzea aldarrikatuz

▣ **Herririk herri** - DURANGALDEA

> **HEZKUNTZA.** Urtean zehar, gizarte eragile asko joan da batzen martxoan Durangaldeko zazpi eskola publikotako gurasoek martxan ipini zuten Berton Bertokoa dinamikara. Durangaldeko bederatzi eskola publikotako guraso elkarteek egin dute bat eskola-jantokien eredia aldatzea aldarrikatzen duen manifestuagaz: Durango, Elorrio, Berriz, Iurreta, Atxondo, Zaldibar eta Abadiño-ko eskoletako haurren gurasoek.

Catering enpresek prestatutako menuak barik, eskoletako jantokietan prestatuko dituzten bertako eta sasoiko produktuak gura dituzte. Eredu berriak umeen elikaduran dakarren hobekuntza ezezik, eskualdeko ekonomian eta nekazaritzan edukiko lukeen eragin positiboa ere nabarmendu dute bultzatzaileek. Umeen osasuna, ingurumena eta tokiko ekonomia babestea da Berton Bertokoa dinamikaren helburua.

Martxotik, etenik barik joan da Berton Bertokoa hainbat gizarte eragileren babesa biltzen: EHNE sindikatuak, Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkar- teak, Durangoko merkatu plazako base- rritarrek, ENEEK eta Sortzen elkarteek, eta Ikasle Abertzaleek babestu dute. Irail- lean, STEE-EILAS, LAB, ESK, UGT eta ELA sindikatuek ere eskola jantokietan bertako produktuak jatearen aldeko pla- taformari atxikimendua eman zioten.



Astolako igerilekuari sakontasuna kendu diote

▣ **Herririk herri** - ABADIÑO

> **KIROLA.** Igerilekua jarduera terapeuti- koak burutu ahal izateko atontzeko obrak egin zituzten, martxoan, Abadiño-ko Astolako kiroldegian. Uretan gimnasia, *spinninga* eta kirol jarduera terapeutikoak egin ahal izateko, igerilekuaren zonalde batzuetan 1.40 metrora murriztu zuten, besteak beste, ontziaren sakonera.

Udalak obra horiek iragarri zitue- nean, aldaketa horregaz kritiko agertu zen igerileku horretan entrenatzen den Astola igeriketa taldea. Sakonera txi- kituta, igerilariak entrenatzeko behar dituzten gutxieneko baldintzak ez zirela beteko ohartarazi zuten taldeko kideek.

Komunikazio ez sexista lantzeko konpromisoa

▣ **Herririk herri** - DURANGALDEA

> **BERDINTASUNA.** ANBOTOk Komunikazio ez sexista lantzeko kode deontologikoa sinatu zuen, martxoan Lehendakaritzan egin zen ekitaldian. Agentziek eta hedabi- deek Begira batzordeagaz batera eginda- ko eztabaidaren emaitza da 50 hedabide eta publizitate agentziak sinaturiko do- kumentua. Izaskun Landaida Emakun- deren zuzendariak ekitaldi hartan adie- razi zuenez, “pauso honeguz asko egin dugu aurrera, baina oraindik asko dago egiteko. Hau ez da helmuga, abiapuntua baizik”. Landaidaren berbetan, “gizartea aldatzeko baliok aldatu behar dira”.



David de Paulagaz, Austriako esperentziaz

▣ **Kirola** - DURANGO

> **FUTBOLA.** FK Austria Wien taldean jo- katzen du David de Paula (Durango, 1984) futbolariak. Azken hiru urteak darama- tza herrialde hartan, eta pozik agertu zen martxoan argitaratutako elkarrizketan. “FK Austria Wien Austriako talde gorena da, titulurik gehien dituen. Oso erronka polita da elastiko hau defendatzea”, adie- razi zuen Durangoko futbolariak. Bere ibilbideari ere begiratu eman zion elka- rrizketa hartan De Paulak. “Bilbao Ath- leticen pasatu nituen urteak ere oso onak izan ziren, taldekide on asko gogoratzen baititut. Sekula ahaztuko ez dudan etapa da Lezamakoa”, adierazi zuen.



Anjel Asenjo, Saharako elkartasun karabanaz

Herririk herri - ATXONDO

> **ELKARTASUNA.** Saharako Elkartasun Karabanak Durangaldean batutako ia 24.000 kilo elikagai eta sendagai Alacantearaino zeraman kamioia gidatu zuen Anjel Alejok (Atxondo, 1958). Hamabigarrenez gidatu du Alejok kamioia, eta bidaiatik bueltan adierazi zuzenez, “jarraitzeko go-goagaz” dago. “Ahal dudan bitartean joango naiz”, adierazi zuen atxondarrak.



Aritz Rodriguezen eta taldekideen ‘Letter’

Kultura - ZALDIBAR

> **ANTZERKIA.** Diego Aimar eta Mikel Pikaza taldekideekin urtarrilean estreinatutako *Letter* antzezlanaren biran, eta apirilean Bilboko Arriolan estreinatu zuten *Uda gau bateko ametsa* antzezlanaren prestaketetan zebilen Aritz Rodriguez aktore zaldibartarra, martxoan. “Oso pozik nago nire bizitza profesionalagaz”, azpimarratu zuen Rodriguezek ANBOTOrri eskainitako elkarrizketa batean. “Nire helburu nagusia lan honetatik bizi ahal izatea da, eta esateko duguna modu polit batean esateko aukerak izaten jarraitzea”, nabarmendu zuen zaldibartarrak.

Bagaizan talde feminista sortu dute Otxandion

Herririk herri - OTXANDIO

> **GIZARTEA.** Hezkuntzan eragitea eta jabe-kuntzan sakontzea helburu, Bagaizan talde feminista sortu dute Otxandion. Adin desberdinetako hamar bat lagunek osatu dute taldea. Martxoaren 8ko Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, hainbat ekintza antolatu zituen talde feminista berriak, eskolagaz eta udalagaz elkarlanean: erakusketa, berbaldia eta antzerki emanaldia, besteak beste.



OTXANDIOKO UDALA
 Tel.: 945 450 020
 www.otxandio.net

Askatasuna eta elkartasuna,
 urte osorako, mundu osorako



Otxandioko Harrera Taldea

📍 **Herririk herri** - OTXANDIO

> **GIZARTEA.** Zortzi herritarrek Harrera Taldea sortu dute, aurten, Otxandion, bertara bizitzera datozei herrian integratzen laguntzeko helburuagaz. Harrera talde sortu berriko kideen ahotik jaso zuen ANBOTOk, martxoan, egitasmo horren berri. Udalbatzak onarturiko Harrera Protokoloak jasotzen duen bezala, Otxandioko Udalean errol da egitera lehenengoz doazenei eskaintzen diete Harrera Taldearen laguntza, etorri berrien eta bertakoen arteko harremana errazteko helburuagaz. He-

rria eta bertako ohiturak ezagutzen eta harremanak errazten laguntzen diete taldekideek etorri berriei. Bizilagun berriaren testuingurua aztertu, eta horren arabera laguntza eskaintzen dute Harrera Taldeko kideek.

Herriaren etorkizuna eraikitzea helburu duen Herri-ola herrigintza egitasmoko Migrazio taldean sorturiko ideia izan da Harrera taldea eratzea. Bestek beste, herritarrek Otxandioko kultur aniztasunaz gogoeta egitera bultzatzea dute jomuga.



Iraunkor, tokiko ekoizpena bultzatzeko

📍 **Herririk herri** - ZORNOTZA

> **GIZARTEA.** Tokiko ekoizpena eta kontsumo arduratsua bultzatzeko sortu dute Iraunkor elkarte, Zornotzan. Martxoan aurkeztu zuten, 17 bazkideguz. Kontsumo ohituren gaineko hausnarketa bultzatu gura du, besteak beste, eta Euskal Herria enparantzan daukate lokala.



Saharako errefuxiatuen kanpamentuetara

📍 **Herririk herri** - DURANGALDEA

> **ELKARTASUNA.** Saharako errefuxiatuen kanpamentuetan uholdeek eragin zituzten kalteak konpontzen laguntzera joan ziren Durangaldeko bost gazte, EHUko 40 kideguz batera.

Mertxe Irazabal, Atxondoko ehiztaria

📍 **Herririk herri** - ATXONDO

> **ELKARRIZKETA.** Gerrikaitzen jaio zen Mertxe Irazabal, 1960an, baina Atxondon bizi da gaur egun. Euskal Telebistako *Herririk txiki, infernu handi* programan agertu eta gero egin zitzaion elkarrizketa, martxoan. Hamalau urte zituenetik ibili dela ehizan kontatu zuen Irazabalek, txikitatik duela gustuko. Adierazi zuenez, ez du ezelako konplexurik gizonekin ehizan edo arrantzan egiteko. "Inoiez naute desberdin tratatu", azpimarratu zuen.



Bonbardaketa memorian gordetzeko helburuagaz

📍 **Herririk herri** - DURANGO

> **MEMORIA HISTORIKOA.** 330 hildakotik gora eragin zituen Durangoko bonbardaketaren 79. urtemugan, Gerediaga elkarteak eta Durangoko Udalak hainbat ekintza antolatu dituzte gertakari haiek gogoratzeko. Bestek beste, bonbardaketari buruzko zazpi minutuko bideo laburra aurkeztu dute, aurten, hainbat zinematlan.



Ermuberrri

Lur-jausiak 300 metro kubiko lur mugitu zuen

📍 **Herririk herri** - MALLABIA

> **EURITEA.** Martxo hasieran izan ziren euriteen eraginez, lur-jausi batek 300 metro kubikoko lur mugimendua sortu zuen, Osma auzoan. Bide bat moztuta gelditu zen, eta auzuneko etxe bat isolatuta. Urte amaieran konpondu dute bidea.



Pedro eta Igor Urien aita-seme autozaleekin

Herririk herri - ABADIÑO

> **ELKARRIZKETA.** Automobilismoa zaletasuna baino gehiago da Pedro Urien (1960, Berriz) eta Igor Urien (1994, Abadiño) aita-semeentzat. Pedro pilotua izan zen, eta Europako txapelketan lehiatu izan da Igor semea. Euskal Herriko txapelketako lasterketan lehiatzeko, prototipo berri buru-belarri lanean zebiltzan aita-seme abadiñarrak martxoako elkarrizketa egunean. “Betidanik egin ditut kart-ak Igorrentzat, eta badakit zer gura duen”, azpimarratu zuen Pedro Urienek elkarrizketan.

Mari Carmen Hernandez Gogora Institutuan

Herririk herri - DURANGO

> **BIZIKIDETZA.** “Hurrengo belaunaldientzat herri alaiago bat egon dadin gabiltza lanean”, azpimarratu zuen Mari Carmen Hernandezek, Gogora Institutuak martxoan Durangoan antolatu zuen solasaldian. 2000ko ekainaren 4an ETAK bere senar Jesus Mari Pedrosa hil zuen, zinegotzi zena Durangoko Udalean. “Bizitza ezinezko egin zidan jendeagaz gurutzatzea asko kostatu zitzaidan”, esan zuen Hernandezek, baina gorrotoari barik, konponbideari heldu zion. Bere alea ipini gura duela adierazi zuen, “hurrengo belaunaldiei herri alaiago bat” uzteko.



Haur-minbiziaren kontra lanean dabilzan ikerlariak

Berbaz - BIZKAIA

> **OSASUNA.** Martxoan urtebete bete zen haur-minbiziaren ikerketarako finantziarioa lortzeko helburuagaz Durangoan antolatu zuten Marea Laranja burutu zutela. Ekimen solidario hartan batutako dirua BioCruces ikerketa zentroko bi proiektu laguntzera bideratu zuten. Zentro horretan, haur-minbiziaren kontra lanean dabilzan Itziar Astigarraga medikuak eta Susana Garcia-Obregón iker-tzaileek eman zuten proiektuaren berri.





2, 3 ETA 4 LOGELAKO ETXEBIZITZEN HURRENGO ERAIKUNTZA

Ertzaintzaren ondoko biribilgunearen alboan



informa zaitetz

946 814 495 / 650 397 007

www.argolabe.com



Lanak 2017an hasiko ditugu



L.E.

84 lagun daude lurperatuta Durangoko hobi komunetan

Herririk herri - DURANGO

> MEMORIA HISTORIKOA. Durangoko bonbardaketaren 79. urteurrena bete da aurten. 1937ko martxoaren 31n, 08:30ean, Mola jeneral faxistaren aginduz Italiar Aviazione Legionariako hegazkinek Durangoko Alde Zaharra bonbardatu zuten. Bonbek mina, kaltea, izua eta hildako asko eragin zituzten. Eraso gehiagoren beldurrez, hildakoak ahalik eta arinen

altxatu eta hilerrira eraman zituzten. Batzuk familiako panteoietan sartu zituzten, eta beste 84 Durangoko hilerriko bi hobi komunetan.

Gerediaga Elkarteko Jon Irazabalegaz bertaratu zen ANBOTO hilerrira, martxoaren 31 bezperan. Sarreratik gertu dagoen lursailean daude hobiak, ome-nezko ikurrik barik oraindik ere. Hobiak

egiteko ideia momentu larri hartako behalako neurri bat izan zela kontatu zuen Irazabalek. “Hildako piloa zegoen, eta ez zekiten non zeuden etsaiak. Zulo bi egin eta bertan sartu zituzten hildakoak, beste edozein gerratan lez”.

Martxoaren 31n, hilerrian burutu zuten Durangoko Udalak antolaturiko oroimen ekitaldia. Agintari politikoeke erasoetan bizia galdu zutenen aldeko lore eskaintza egin zuten kaperan, Iñigo Urkullu lehendakaria buru zela. Iluntzean, Gerediaga Elkartek eta Kriskitin dantza taldeak antolaturiko ekitaldia egin zuten Andra Marian.



Anfiteatroari egurrezko estalkia ipiniko diote

Herririk herri - MALLABIA

> AZPIEGITURA. Mallabiko anfiteatroa estaltzeko proiektuaren inguruan, herritarrei iritzia eskatu zien udalak. Gobernu taldeak jakitera eman zuenez, 75 herritarrek eman zuten botoa, proposatu zizkien bi aukeretatik gustukoena aukeratzeko. Kristalezko estalkia egiteko aukera jasozten zuten aukeretako batek, eta egurrezkoa bigarrenak. Bigarrenaren aldeko botoa eman zuten mallabitar gehinek: %64k, hain zuzen ere. Estalkiaren barrualdean umeentzat jolasak eta helduentzat gimnasio biosasungarrirako makinak ipiniko dituzte, eta egurrezkoa izango da anfiteatro berriko lurra ere.

28 etxe eraikiko dituzte autobus geltoki inguruan

Herririk herri - MAÑARIA

> HIRIGINTZA. 2017an 28 etxebizitza eraikiko dituzte Durangorantzako norabidean dagoen autobus geltokiaren inguruan. Udalaren eta Arbolabe enpresaren arteko akordioari esker, 28 horietatik hiru prezio tasatuko etxeak izango dira. Urteak atzera datorren egitasmoa da etxebizitzon eraikuntza, hasiera batean 14 etxeren eraikuntza aurreikusten zuena. Metro karratu berdinetan etxebizitza kopurua bikoiztu egingo dute, azkenean. Hirigintza arauak kontuan hartuta, etxeen eraikuntzarako plan berezi bat onartu zuten udalbatzarrean, proiektu honi lotuta.



Beñat Intxausti, Sky Team taldeko esperientziaz

Kirola - ZORNOTZA

> TXIRRINDULARITZA. Denboraldia oso ondo hasi zuen Beñat Intxausti (Muxika, 1986) txirrindulariak, baina mononukleosi batek bere helburu nagusia zen Italiako Girotik kanpo utzi zuen. 2015. urte amaieran bi urteko kontratua sinatu zuen Team Sky taldean, eta Chris Froome eta Mikel Landaren mailako taldekideekin dihardu. “Mononukleosia dela-eta helburu guztiak aldatu behar izan ditut, eta orain sasoa berreskuratzea da nire helburua”, esan zuen Intxaustik apirilean. “Sky-ren moduko talde indartsu batek euskal txirrindulariengan konfiantza izatea pozgarria da guretzat”, gaineratu zuen.



Errefuxiatuen drama

Berbaz - ZORNOTZA

> **GIZA ESKUBIDEAK.** Juan Atxutegi zornotzarraren ahotik jaso zuen ANBOTOK, apirilean, Greziara saldoka iristen ari ziren errefuxiatuen dramaren berri. Salva-mento Marítimo Humanitario GKEagaz

jardun zen Atxutegi lan boluntarioan, Chios irlan. “Giza gatazka erraldoia da han gertatzen ari dena. Heriotzetik, gerratik, gosetik... ihesean daude Chiosen milaka pertsona. Europako atera iristean, lau metroko alanbre-hesia eta Frontexa topatzen dituzte”, esan zuen. “Europar legez, lotsa sentitu dut”, gaineratu zuen.

Urpeko arrantzan zebilela hil zen Joseba Kerejeta

Kirola - DURANGO

> **URPEKO ARRANTZA.** Miamin (AEB) urpeko arrantza praktikatzan zebilela hil zen Joseba Kerejeta durangarra, apirilaren 22an. 47 urte zituen, eta alaba biren aita zen Kerejeta. 2008an urpeko arrantzako munduko txapelketa irabazi zuen.

Kerejeta durangarraren heriotzagaz, urpeko arrantzak bere enbaxadore nagusiagalduzuen. Josetxo Errondosorok gertuko laguna zuen Kerejeta. “Urpeko arrantzale denek, modu batera edo bestera, Kerejeta bat izan gura zuten: munduan bidaiatzen zuen abenturazalea, hamaika tokitan kontaktuak zituena...”, esan zuen, Errondosorok. Bere ibilbideko lorpen eta ekarpenengatik, Espainiako Gobernuak kiroleko brontzezko domina eman dio, azaroan, Kerejetari.



L.E.

Itsaso Egia: “Europatik ez gara laguntzen ari”

Berbaz - DURANGO

> **GIZA ESKUBIDEAK.** Errefuxiatuei harre-
ra egiten die Itsaso Egia CEAR elkarteko
kide durangarrak. “Gerratik ihesean da-
torrenari lagundu egin behar zaio”, esan
zuen, baina “Europatik ez gara laguntzen
ari. Beste aldera begira gaude”.

BAT Basque Team-era batu da Illart Zuazubizkar

Kirola - ABADIÑO

> **TXIRRINDULARITZA.** Illart Zuazubizkar pistako txirrindulari abadiñarrak BAT Basque Team-era batzeko kontratua sinatu zuen apirilean. Goi mailako kirolariei babeska eskaintzen dien fundazioagaz sinaturiko kontratua urte askotako “lan gorraren” emaitza dela adierazi zuen.



Josetxo Errondosoro



GARAICO UDALA

Tel.: 946 816 393

www.garaikoudala.org



Kurdistanen ikusi eta ikasitakoa

Akuiua - DURANGALDEA

> **INTERNAZIONALISMOA.** Durangaldeko zazpi lagun Kurdistanen egon dira aurten, eta han bizitako esperientzia kontatu zuten apirileko elkarrizketan. Turkiako aldera joan ziren Gorka Zuazua, Humberto Trapero, Eduardo Eizarzugaza eta Egoitz Uriarte, eta Siriako estatuari planto eginez sorturiko Rojavako federaziora Mikel Gandarias, Adrian Zelaia eta Jon Bingen Landabidea. Gerra sasoiaren, bere kabuz egituratzen dabilen herri bat ezagutu zuten,

Sirian eta Turkian. *Newroz* ospakizunetan topatu zituzten Durangaldeko lagunek kurduak: suaren bueltan neguari agur esan eta herriaren erresistentzia omentzen. Petrolioaren interesek eragindako gatazken erdian, Turkia, Siria, Iran eta Irak estatuetan zatitutako Kurdistan lurraldearen beste irudi bat eskaini zuten Durangaldeko gazteek: estatuetatik aparte, auzo eta komunitateetan egituratzen dabilen herri bat, emakumeak protagonista dituen.

Eñaut Gallastegiartzaina: "Afizioa ofizio daukat"

Akuiua - MALLABIA

> **ABELTZAINNTZA.** Ikasketak utzi eta artaldea hartu zuen Eñaut Gallastegik (Mallabia, 1991) duela sei urte, 18 urte zituela. Eta amagaz batera gazta ere egiten du, duela hiru urtetik. "Afizioa ofizio daukat, eta zorionekoa naizela uste dut", adierazi zuen. Hala ere, abeltzaintzatik bizitza ez dela erraza ere azpimarratu zuen. "Korta eta instalazio berria jarri ditugu, eta erraz gobernatzen dira. Bestela, pertsona batentzat bakarrik lan handia da. Ardientzako azpiegitura aproposak izan ezean, nekosoa da, gaitza. Ordu asko behar dituzu horretarako", esan zuen.



Munduko txapelketan brontzea, Asier Agirrek

Kirola - DURANGO

> **ATLETISMOA.** "Bizitzan umila izan behar da, baina inkonformista ere bai", adierazi zuen Asier Agirre (Durango, 1989) BAT Basque Team taldeko paratletak, apirilaren 1ean argitaraturiko elkarrizketan. Santanderren Espainiako kros txapelketa irabazi berrikan beragaz izandako solasaldian azaldu zuenez, Rioko Joko Paralimpikoetara sailkatzea zen bere helburua. Azkenean, ez zuen sailkatzerik lortu. Baina beti aurrera egiten duen horietakoa da, eta izaera horrek lorpen handi batera eramandu. Azaroaren amaieran Portugalen jokaturiko maratoi erdienen munduko txapelketan brontzezko domina irabazi zuen korrikalari durangarrak.

Sagardoy da 'Aundiya' filmeko protagonista

Kultura - DURANGO

> **ZINEMA.** *Altzoko Aundiya* ezizenez ezagun egin zen Miguel Joaquín Eleizagiren paper protagonista antzeztan du Eneko Sagardoy aktore durangarrak Moriarti ekoiztetxearen *Aundiya* filmean. Euskal Herriko hainbat lokalizaziotan lanean ibili ostean, ekainean amaitu zuten grabazioa. Maiatzean Durangon ibili ziren lantaldeko kideak eta Durangaldeko hainbat figurante grabazio lanetan.



Enrike Zaldibar 'Peke' U2 Taskako arduradunagaz

Akuiua - MAÑARÍA

> **OSTALARITZA.** Enrike Zaldibar U2 taskako arduradunaren elkarrizketa argitaratu zuen Durangaldeko astekariak, apiril amaieran. U2 "oso lagunarteko taberna" dela esan zuen bederatzi urtez bertako arduraduna den Enrike Zaldibar *Pekek*. Mañariko tabernan liburu bat idazteko beste pasarte bizi izan dituela kontatu zuen. "Ez dut arazorik askori giltzak uzteko, bigarren etxea dute batzuek".



Gorane Gorospe modelo durangarra

Akuilua - DURANGO

> **MODA.** Argazki saioetan eta pasarelan modelo gisa egiten duen lanaz mintzatu zen Gorane Gorospe (Durango, 1993), apirilean argitaratutako elkarrizketan. “Irakaslea izatea gura izan dut beti, eta horretarako prestatzen ari naiz”, kontatu zuen Gorospek solasaldi horretan. “Zaletasuna ez dut esango, baina dirua irabazteko beste aukera bat da modelo lana”, adierazi zuen durangarrak.

Jose Joakin Maskariano albokagile atxondarra

Akuilua - ATXONDO

> **MUSIKA.** Albokakegitenditu duela zortzi urtetik Jose Joakin Maskarianok (Atxondo, 1960), eta duela hiru urte hasi zen jotzen. Instrumentu horrekiko zaletasunaz jardun zen astekariaren apirilaren 22ko alean. “Handik eta hemendik adarrak topatzen hasi nintzen, infomazioa batzen, eta lehenengo alboka egitea lortu nuen”, kontatu zuen, “gustua hartu nion, eta hobetzen joan naiz”. Alboka jotzeko, arnasa hartzen ikastea dela gakoa azaldu zuen.



Sorginolako Ateneoa liburutegia zabalik

Kultura - DURANGO

> **LITERATURA.** Apiril amaieran, literatura-ri buruzko mahai-inguru batez inaureratu zuten Sorginola Gaztetxeko liburutegia. Liburuen eta ikus-entzunezkoen mailaturako espazioa izateaz gain, Ateneoak “kultur arloko zein gazteen aisialdirako alternatibak eskaintzea” gura dute taldekideek, izan ere, Durangon horretarako beharrezana ikusten dute gazteek.

Tanta bakoitzean, kalitaterik onena deskubrituko duzu

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
 Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia
www.consorciodeaguas.eus



Pedro Uriguenen gorpuzkiak Zornotzara bueltan

📍 **Herririk herri** - ZORNOTZA

> **OROIMENA.** Pedro Uriguen gudari zornotzarra Gerra Zibilean hil zuten, Mendatan, lurrean zaurituta zegoela frankistek buruan tiro eginda. Inguruko base-rritar batek hantxe lurperatu zuen. Bere senitartekok harrezkero joan diren urte guztiak itxaron behar izan dituzte bere gorpuzkiak jaso eta instituzioen erreko-
nozimendua jasotzeko.

Maiatzaz geroztik, Pedroren gorpuzkiak Zornotzako Larra hilerrian daude lurperatuta, bere amaren ondoan. Frankismoaren biktima lez, hainbat erakunderen erreko-
nozimendua jaso zuen, Donostian, beste hainbat gudariagaz batera, Iñiko Urkullu lehendakaria buru izan zen ekitaldian. Eurei eta familiari urte askoan eragindako mina ahaztea ezinez-

koa dela azaldu zuten Pedroren loba Kar-mele eta Mari Tere Larruzeak eta Maria Angeles Barrenak, baina “duintasuna” eta “lasaitasuna” berreskuratzeko pauso garrantzitsuak izan direla. Bere ama eta izeba ere gogoratu zituzten. “Amaren nahia beti izan zen gorpuzkiak ekartzea; baita izebarena ere. Orain, desio hori beteta dago”, adierazi zuten.

Langabeen inguruko datuak enpresen eskura

📍 **Herririk herri** - ELORRIO

> **ENPLEGUA.** Herriko langabeen egoerak arduratuta, ideia berri bat plazaratu zuen Elorrioko Udalak: lanik barik dauden herri-
ritarren curriculumak jaso eta zerrenda oso hori herriko enpresen eskura jar-tzea. Enpresekin hartueman aberasteko lehen pauso moduan ere erabili zuten.



Lapurreten aurrean, zaintza eskaera

📍 **Herririk herri** - OTXANDIO

> **LAPURRETAK.** Urte hasieran izandako la-purreten aurrean, udalak neurriak har-tzeko eskatu zion Ertzaintzari. Zaintza areagotuko zutela erantzun zioten. Baina lapurretek jarraitu egin dute. Ondorioz, hiruko batzar bat prestatzen dabilta udal, tabernari eta ertzainen artean.



Derrigorrezko Hezkuntza eskaintza · Batxilergoa · Lanbide heziketa

Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH · Batxilergoa

Haur Hezkuntzako Goi Teknikari titulua · Gaitasun profesionalak: arreta soziosanitarioa, ur sorosle...





Jaurlaritzak udalari utzi dio Ospitaleko lursail bat

✚ **Herririk herri** - ZALDIBAR

> **ONDASUN ESLEIPENA.** Zaldibarko Udalaren urteetako eskaria aintzat hartu eta ospitale inguruko 3.448 metro koadroko lursaila herriaren esku utzi zuen Eusko Jaurlaritzak maiatzean. Lursail horretan zaldibartar guztientzako irekia izango den berdegune bat atonduko dute. Asmo hori gauzatu ahal izateko, ospitalea inguratzen duen hormaren zati bat bota eta berri bat egingo dute. Udalak 174.455 euroko aurrekontuagaz esleitu dizkio lanak Lasuen enpresari. Portu eta urtegi-tan egoten direnen antzekoa izango da altxatuko duten horma: altzairu eta kristalezko 2 metroko altuerakoa.

Lursail hori herritarren erabilerarako berreskuratzea zaldibartarren aspaldiko eskaria da. Aurten, baina, mobilizazioak ere egin izan dituzte *Eusko Jaurlaritza, itzuli lurra herriari* lelopean.

Bernagoitiko jaiak indar berriagaz antolatu dituzte

✚ **Herririk herri** - ZORNOTZA

> **JAIK.** Sasoi batean Bernagoitiko jaiak zuten loria berreskuratzeke lehen urratsa eman dute aurten auzotarrek, hiru eguneko jaiak antolatuta: Eskoziako musika, pilota partidu bertsotua... egon dira.



“Lan handia eta giro ona, horiexek dira gakoak”

✚ **Kirola** - DURANGO

> **SASKIBALOA.** Tabirako-Baqueko talde nagusi biek igoera faseak jokatu dituzte aurten. Emakumeenean, Nuria Maurtua kapitaina izan da taldeko gidaria.

Pedro Moreno, DRTren kamerari boluntarioa

✚ **Akuilua** - DURANGO

> **ERRUGBIA.** Durango Rugby Taldearen partidu denak musu-truk grabatzen ditu Pedro Moreno ‘Peter’-ek. “Gustatzen zaidalako joaten naiz. DRT, taldeko jokalariek... beste familia bat daukat. Askok eman dit DRTk”.



Ana Rosa Erdoiza musika irakaslea omendu dute

✚ **Herririk herri** - ZORNOTZA

> **OMENALDIA.** Bizitza osoa musika irakasle eman du Ana Rosa Erdoizak, batez ere, Zubiaur musika eskolan. Aurten erretiroa hartu du eta Eleizaten ekimenean omenaldia egin zioten. “Musikari dena eman diot eta musikak dena eman dit”, azaldu zuen.

Zorionak eta urte berri on!







L.E.

Amuriza plazetatik erretiratu da

📍 **Kultura** - BERRIZ

> **BERTSOLARITZA.** Maiatzaren 3an, 75 urte egin zituen egunean, bat-bateko bertsogintza utziko zuela iragarri zuen Xabier Amurizak. Horren harira, Unai Iturriaga bertsolari eta idazleak elkar-riketa egin zion. Amurizak honela azaldu zuen hartutako erabakia: “Nik bertsolaritzan egin nezakeena eginda dago. Uste dut intelektualki oraindik urte onak eduki ditzakedala, eta horiek aprobetxatu gura ditut eskusiboki nire intereseko gauzetarako. Literatur sor-

kuntzan zentratu gura dut nire burua, eta ez dut bestelako ardurarik gura. Aro bat itxi, baina beste bat zabaldu gura dut orain”.

Amuriza bertsolariaren zer irudi daukan galdetuta, orain “maitatua” sentitzen dela azaldu zuen. “Bertsolari oso polemikoa izan nintzen bere saioan, baina urteak joanda, nigaz tratatu zuzena eduki dutenek maite nautela nabari dut. Horrek poz itzela ematen dit”, esan zuen.



Auzoen berrikuntzara 800.000 euro

📍 **Herririk herri** - DURANGO

> **POLITIKA.** Maiatzean onartutako aurrekontuetan auzo zaharrenetako batzuk hobetzeko, 800.000 euroko diru-atala bideratu du udalak. Aramotz, San Fausto eta Antso Estegiz auzoetan egin dituzte edo egingo dituzte inbertsioak aurtengo urtean zehar.



Autobus zerbitzua osatu du Bizkaibusek

📍 **Herririk herri** - IZURTZA

> **GARRAIOA.** Maiatz amaieran, Mañaria eta Izurtzarako autobus zerbitzua osatu zuen Bizkaibusek. Orain, joan-etorrietan, geltoki denetan igo daiteke autobusean. Baita bertatik jaitsi ere.



Ikastolen aldeko Ibilaldia jaia Durangon egin dute

📍 **Kultura** - DURANGO

> **IBILALDIA.** Ibaizabal eta Kurutziaga ikastolek Bizkaiko ikastolen jaia antolatu zuten, maiatzaren 29an, Durangon. “Ibilaldian herriko eragileekin sortutako harremanari datozen urteetan segida ematea gustatuko litzaiguke”, adierazi zuten Ibaizabaleko eta Kurutziagako zuzendari Idurre Maortuak eta Urko Rodriguezek.

Lopez eta Mallagarai, akrobatik saskibaloian

📍 **Akuilua** - DURANGALDEA

> **DANTZA.** Saskibaloitako partiduetako hutsarteak betetzen dituzte cheerleader-ek. Ethan Lopez eta Paule Mallagarai Dominium Bilbao Basketen Stylecheers taldeko kideak dira. Dantzari eta akrobata iaioak izateaz gainera, estereotipoak aldatzen ere saiatzen dira. “Harmailetatik hau edo bestea eskatu arren, dantzari gure kutsua ematen saiatzen gara: hip-hop-a sartuz, neskak txandalarekin irtenda... ikuskizuna baloratu dezaten”.



Emakumeen izen gehiago kale izendegian

📍 **Herririk herri** - DURANGO

> **KALE IZENDEGIA.** Durangoko Berdintasun Kontseiluak bultzatuta, herrian emakumeen izenak ikusarazteko pausoa eman dute. Aurora Abasolo, Benita Uribarrena eta Bixenta Mogelen izenak gehitu gura dituzte.



BAUTISTA

MUEBLES Y DECORACIÓN



BADAKIGU ZURE DENDA GARELA

Beherapen kanpainaren hasiera: 2017ko urtarrilaren 7a
Deskontu bereziak sail guztietan
Erakusketako altzariak likidazioan, bilduma eraberritzea dela eta

Proiektua eta aurrekontua konpromisorik gabe
Finantziakoa dohainik

www.bautistamuebles.com

 94 672 77 00 info@bautistamuebles.com

Urbite Industriagunea, 4 - 2. pabiloia ABADIÑO
(Eroski merkataritza-gunearen ondoan)



Merkataritza-gune handiak bai ala ez, eztabaida

☑ **Herririk herri** - ABADIÑO

> **KOMERTZIO EREDUA.** Mercadonak eta Lidlek saltoki-gune handi bana jartzeko asmotan zebiltza-eta Abadiñon —Murrueta auzoan—, ekainean arau subsidiarioetan aldaketak egiteko prozesua hasi zuen udalak hori ahalbidetzeko.

Bere asmoen berri eman ostean, herriarren artean parte-hartze prozesua ireki zuen. Ondoren, gaia Hiri Planeamenduko Aholkularitza Batzordera eraman zuten, eta alkatearen kalitatezko botoagaz baiezkotak irabazi zuten.

Gerora, Mercadonak bertan behera utzi du proiektua, baina Durangaldean merkataritza-gune handi bat egiteko asmoagaz aurrera jarraituko duela jakinarazi du, Durangaldeko Lurralde Zati Planak lau edo bost supermerkatu zabaltzeko aukera aurreikusten baitu. Lidlek, berriz, aurrera darrai Abadiñon Muruetako proiektuagaz.

Bitartean, Abadiñoeko merkataria eta sindikatuek Kaleartean plataforma sortu dute, euren interesak elkarregaz de-

fendatzeko. EH Bilduren bidez, mozio bat aurkeztu zuten udalbatzarrean. Gai honen inguruko herri galdeketa bat eskatzen zuten. EAJ eta AI alderdiek kontra bozkatu zuten.

Inguruko herrietako udalbatzarretan ere eztabaidatu izan da gaia. Durangon, esaterako, PP kenduta, erabaki horrek ezin duela aldebakarrekota izan zioen mozioa onartu zuten gainerako alderdi denek. Uste dute inguruko herri ere eragiten diela.



EAJk lortu ditu botorik gehien Kongresurako

☑ **Herririk herri** - DURANGALDEA

> **HAUTESKUNDEAK.** Ekainean Espainiako kongresurako hauteskundeak errepikatu zituzten. Orduko hartan ere EAJ izan zen alderdirik bozkatuena Durangaldean, nahiz eta aurrekoan baino 697 boto gutxiago jaso. Elkarrekin Ahal Dugu koalizioa izan zen bigarren indarra eta EH Bildu hirugarrena. Azken honek 1.500 boto galdu zituen. PSE-EEk eta PPK gora egin zuten apur bat. Abstentzioa %3 igo zen (%29.6).



Txakurren adopzioaren aldeko jaia egin zuten

☑ **Herririk herri** - DURANGALDEA

> **ADOPZIOA.** Txakurren adopzioaren aldeko jaia egin zuten Landako Gunean. Txakurrak dituzten hainbat jabegaz egon ginen euren esperientzia ezagutzeko. “Hasieran kezka apur bat neukan, ea ondo konponduko ote ginen... Txakurrak bere pertsonalitatea osatua izaten du. Baina, orain, banaezinak gara. Maitasuna eta beragaz egotea behar zuen, batez ere”, kontatu zuen Eneko Cayadok. Maitasunaz gainera, heziketa oso garrantzitsua izaten da kasu hauetan. “Gure helburua txakurra ondo heztea izaten da, babesetxe batera bueltatu ez dadin”, azaldu zuen Amaia Aranburuk. Adopzioaren aldeko mezua zabaltu zuten denek.

Arrazola eta Uribelarrea, abizen biren ospakizuna

☑ **Herririk herri** - ATXONDO

> **TOPAKETA.** Arrazola eta Uribelarrea abizenek Atxondoko Arrazolan dute jatorria, baina mundu osoan zabalduta daude. Aurten, abizen horiek dituztenen topaketa bana egin dute Arrazolan.

Arrazolatarraren jardunaldi nagusiak Oñatin egin zituzten eta, ondoren, Arrazolan bazkaritara batu ziren ekainean. Uribelarreatarrak abuztuan batu ziren, Makatzetan bazkaltzeko.





Baserritar gazteak, sustraiak lurrari lotuta

Herririk herri - DURANGALDEA

> **BASERRI EREDUA.** Eskualdeko baserritar gazteen esperientziak jaso genituen ekaineko erreportajearen. Belaunaldi berria prestatuago eta kontzientziatuago dago. Julen Azkoaga mañariarrak eta bere lankideak, esaterako, Ingurumen Zientzia ikasitakoak dira, eta ortua dute Mañarian: “Dirutik harago, bizimoduak asko betetzen zaitu”, azaldu zuen. Aurrera begira, “agroekologian eta salmenta zuzenean gabiltzanok batu egin beharko ginatkeela uste dut”.

Jon Bereziartua iurretarrak “eraldaketa sozialerako tresna moduan” ikusten du korronte berriaren jarduera. “Aukera moduan ikusi genuen”, azaldu du.

Retolazaren bizitzari erreposoa Leturiagagaz

Herririk herri - ATXONDO

> **OMENALDIA.** Agustin Leturiagaren eskutik Jose Antonio Retolaza (1929-2014) gogoratu genuen, Arrazolan egin zioten omenaldia baliatuz. Retolazak Kili-Kili pertsonaia eta izen bereko aldizkaria sortu zituen, eta ohorezko euskaltzaina izan zen. Abade jardun zuen Arrazolan, eta euskaraz inoiz eman den lehen meza hantxe eman zuten Retolazak eta Gallastegik.



Iñaki Iza zornotzarrak pilota profesionala utzi du

Kirola - ZORNOTZA

> **PILOTA.** Gerriko minak eraginda, pilota profesionala utzi du aurten Iñaki Izak. Ebakuntza bi egin zizkioten, eta ez zuen hobekuntzarik igarri. “Lo egiterakoan ere min ematen dit. Animikoki desgastea dakar, baina ondo daramat”, adierazi zuen. Erdu pilota eskola sortu du Zornotzan, neskei begira. 12-13 urtetik aurrera neskak jokatzeko aukera barik geratzen direla-eta, pilotan jarraitzeko gune bat eskaintzea dute helburu, besteak beste.





la milioi biko isuna Berrizko Udalarari

✚ **Herririk herri** - BERRIZ

> **ISUNA.** 2003an Berriz Susa hirigintza-sozietateak esleipen irregular bat egin zuela ebatzi dute epaitegiek eta, ondorioz, Berrizko Udalak 1.823.525 euroko zigorra ordaindu behar du. Zigor hori ordaintzeko, Berrizko Udala eta Jauregizar SL akordio batera iritsi dira. Uztaileko batzorde baten ostean jakinarazi zutenenez, 1.823.526,84 euroko isuna ordaindu beharrean, 1.500.000 euroko hiru ordainketa egiten dabil udala. 300.000, 400.000 eta 750.000 euroko ordainketa bana.

Gobernu taldekoek aurkeztutako ordainketa planean jakitera eman zutenenez, 960.000 euroko kreditua eskatuko du udalak ordainketa prozesuagaz aurrera egiteko. 10 urteko epean ordaindu beharreko kreditu horrek 175.000tik 200.000 eurora bitarteko interesa edukiko luke.

Isunaren berri jakin zenetik, Berriz Zergaitik? plataforma sortu dute herritarrek. “Ez gaude prest inoren akatsak herriko diruagaz ordaintzeko”, adierazi dute plataformakoek.



“Plaza bete-beteta ikustea itzela izan zen”

✚ **Herririk herri** - ABADIÑO

> **MUSIKA.** Aitor eta Dani Pintado DJ munduan tokia egiten ari diren abadiñar bi dira. Danik reggaetoiak jartzen du, eta Aitorrek gogokoago du musika elektronikoa. Azken honek kontzertua eskaini du Traña-Matienako jaietan aurten. “Plaza bete-beteta ikustea itzela izan zen”, esan zuten.



26 urteren ostean, Mila Rodriguezen agurra

✚ **Herririk herri** - IZURTZA

> **MUSIKA.** Mila Rodriguezek 26 urte eman ditu Izurtzan musika eta piano irakasle. Aurten utzi du. Urte hauetan ikasle izan dutenek omenaldia egin zioten. “Sorpresak izan zen. Askok hunkitu gintzen”.



Irudimena sustatzea helburu duen jolaslekua

✚ **Herririk herri** - IZURTZA

> **JOLASLEKUA.** Naturako elementuak (egurra, haria...) erabiliz jolasleku berria egin dute Izurtzan, Santo Tomas ermitaren ondoan. Umeen irudimena sustatzea du helburu; jolasteko oinarriak jarritz, hortik aurrerakoa gazteek irudikatzea.

Unzueta, Argentinan bizi den mendiolarra

✚ **Herririk herri** - ABADIÑO

> **DIASPORTA.** Ignacio Unzueta abadiñarrak Argentinan eman ditu bere bizitzako urterik gehienak. 16 urteagaz joan zen. 80. urteurrena sorterrian ospatu du, Mendiola auzoan. 65 urtean Argentinan bizi arren, Unzuetak ez du euskara galdu. Rosarioko euskal etxeko lagunekin harrimana eginez, eta ahal izan duenetan Mendiolarra bueltatuta gorde du ama hizkuntza. “Inportantea izan da niretzat hizkuntza ez galtzea”, azpimarratu du.



Durangoko Intxaurre elkarteak 30 urte egin ditu

✚ **Herririk herri** - DURANGO

> **URTEURRENA.** Atea ixtera noiz etorriko diren ez zekitelarik, Intxaurre elkartearen 30. urteurrena ospatu zuten ekainean. Izan ere, 2000. urtean eman zuten enbargatzeko epaia. Ibon Azuetak eta Maialen Bildosolak elkarteko egoeraren eta urteurrenako jaiaren berri eman zuten. Azuetak 25 urte eman ditu Intxaurren.



Tania Calvo Rioko Joko Olinpikoetan aritu da

Kirola - BERRIZ

> PISTA. Berrizko Eustrak Euskadin dabil Tania Calvo gasteiztarra. Aurten Rioko Joko Olinpikoetan parte hartu du. Ezin izan du dominarik eskuratu, baina 24 urtegar etorriko zaizkio aukera berriak: “Esperientzia falta amets bat betetzearen ilusioagaz konpentsatuko dut”, adierazi zuen Jokoetara joan aurretik egindako elkarrizketan.

Ondoren, urriaren amaieran, Europako txapelketan zilarra irabazi zuen abiadura proban, Helena Casasegaz bikotea osatuta.

Iñaki Uriberen catering berezia Yosemite

Herririk herri - DURANGO

> GASTRONOMIA. Saltsan catering-eko Iñaki Uribe San Frantziskon (Kalifornia, AEB) egon zen 1991n, lanean eta ingelesa ikasten, eta orain, 25 urte geroago, hara bueltatzeko aukera etorri zaio. Ez edozelako planean, gainera: ezkongaien despedita bateko catering-a antolatu du, Yosemiteko parke nazionaleko paraje ederretan. Hogei bat plater eskaini zizkien Uribek: txangurrua, kroketak, pikillo piper beteak, txipiroiak, bakailaoa... Edateko, txakolina, sagardoa, ardoa... “Kalimotxo fresko-fresko bat ere egin nuen porroian, eta arrakasta itzela eduki zuen”.



Fitogaz, minbiziaren kontrako kanpainan

Herririk herri - ABADIÑO

> ELKARTASUNA. Guruzetako ospitalean minbiziagaz dauden haurren gurasoek La Cuadri del Hospi elkarte osatzen dute, eta eurei laguntzeko asmoz, bideoklip berria grabatu du Fito abeslariak, minbiziaren duten gazteak eta euren senideak protagonista direla. Eider Atutxa 16 urteko abadiñarra da euretako bat. “Ahalik eta jenderik gehien agertzea gura zuten, eta ideia ona iruditu zitzaigun”, adierazi zuen abadiñar gazteak.





Auzotik eta auzotarrentzat antolatzen diren jaiak berbagai

▣ **Herririk herri** - DURANGALDEA

> **JAIK.** Udako iluntze luzeekin batera, auzoetako jaiak protagonista bihurtzen dira Durangaldean. Hori dela-eta, auzoko jaien erakusle lez auzoei bizia ematen dieten zenbait lagunegaz batu zen ANBOTO, eta haien jardunari buruz aritu zen berriketan. Herri ezberdinetan antolatu arren helburu berdina duten jaiak borondatezko lana dute ardatz.

Horren harira, baina, Gerediagako Kepa Bengoa kexu agertu zen, instituzioen aldetik ez delako “behar bezala baloratzen” jai batzordeek eta boluntarioek egiten duten lana. Hala ere, jaiak antolatzeko “polita eta esker onekoa” dela aitortu zuen Bengoak.

Gerediaga, Amatza, Arrazola eta Argiñetako herritarrek aitortu zuten, jai

hauek auzotarrak auzoan elkartzeko arrazoi bikaina dira, eta elkarrekin jai-giroan disfrutatzeko aukera paregabea. Gainera, auzoetako jaiak “familia askoren bilgune” izaten direla aitortu zuen Maialen Magunagoitia Arrazolako jai batzordeko kideak.

Durangaldeko lau auzo hauetako kideek auzotarrei eskerrak emangura izan zizkieten herriak herriarentzat egiten dituen jai hauen antolaketa laguntzeagatik, eta baita hauetan parte hartzeagatik ere. Kanpotik beraien auzoetako jaietara joaten diren guztiei ere adierazi gura diete euren esker ona.



Durangaldeko lehen autokarabana gunea

▣ **Herririk herri** - ELORRIO

> **AISIALDIA.** Hiru urte dira Elorrioko Udalak autokarabana gunea egin gura zuela, eta uztaileko lehen astean inauguratu zuen. Herrira turistak ekartzea du helburu guneak. 10 autokarabanantzako lekua du, eta beste bi espazio ur zikinak bota edota elektrizitatea hartu ahal izateko. Horrez gainera, berdegune bat, mahaiaik eta txin-txaunak ere badaude San Jose auzunean kokatuta dagoen gunean.



Aire kutsatuaren maila 41 bider gainditu zen iaz

▣ **Herririk herri** - DURANGALDEA

> **INGURUMENA.** Ekologistak Martxan erakundeak egindako txostenaren arabera, 2015ean aire kutsatuaren maila 41 bider gainditu zen eskualdean. Txostenean agertzen denez, suspentsio partikulen datuek Munduko Osasun Erakundeak (MOE) ezarritako muga pasatu zuten Durangoko eta Zornotzako estazioetan. Euskal Herriko daturik txarrenak izan dira.

Datuok ikusita, Ekologistak Martxanek zirkulazioa murrizteko neurriak eskatu dizkie instituzioei. Oinez eta bizikletaz gehiago ibiltzekoak, adibidez. Gainera, industria instalazioak hobetzeko, energia kontsumoa bajatzeko eta energia berriztagarrien alde egiteko eskatu die.

Berrizko dantzariak parekidetasuna helburu

▣ **Herririk herri** - BERRIZ

> **KULTURA.** Berrizko Iremitze eta San Lorentzo dantza taldeetako kideek dantzen tradizioa sasoi berrietara egokitzeko egin zuten lan herriko jaien bueltan. Herriko dantzariak, tradizioz jarrita zeuden baldintza batzuk aldatu eta parekidetasuna lortzeko asmoz, emakumezkoen atea zabaltzeko dantzari dantzari aritzeko. Gai honen inguruan beraien gogoeta egin dute Maialen Narbaiza eta Ismael Lasarte herriko dantzariak.





ZALDIBAR ELIZATEKO UDALA
Tel.: 946 827 016
www.zaldibar.eus



Zaldibar
Elizateko Udala



RENAULT
Passion for life

Bigarren eskuko ibilgailuek espazio zabala behar zuten, eta eman egin diegu.

GAURSA OCASIÓN

ESPAZIO ZABALA



BIGARREN ESKUKO IBILGAILUAK IURRETAN

Kalitate handia eskaintzen dugulako (ehun puntutan baino gehiagotan errebisatutako autoak); 24 hilabeterainoko bermea ematen dugulako; stock handia eta marka guztietako ibilgailu-aukera zabala dugulako; gure prezioak azken prezioak direlako; finantziario-baldintza ezin hobekak eskaintzen ditugulako... Eta beste hainbat arrazoi tarteko, bigarren eskuko ibilgailu baten bila bazabiltza, zatoz **IURRETAKO GAURSA ZENTRO HANDIRA.**



RENAULT
OCASIÓN

ZER EZ ZENUKE EMANGO HORRELAKO AUTO BATENGATIK

GAURSA

Arriandi, 12. Tel. 94 620 33 00. IURRETA www.gaursa.com

Renault recomienda **elf**



Taberna, denda eta aterpetxea Arrazolan

Herrikerri herri - ATXONDO

> **HIRIGINTZA.** Arrazolako eskola zaharreko eraikinean taberna eta denda egitea erabaki zuten uztailean egindako herri batzarrean. Batzarrean batutako 25 lagunek, taberna eta denda egiteko proposamena onartzeaz gain, gaur egun etxebizitza sozialak dauden eraikineko beheko solairuan aterpetxea egiteko proposamena onartu zuten.

85.000-90.000 euroko kostua izango duen proiektuaren helburua herritarrentzat zein herrira datozenentzat elkargunea izatea dela adierazi zuen David Cobos alkateak.

Silvia Trigueros nagusi Ehun Milak proban

Kirola - ABADIÑO

> **KORRIKA.** Silvia Trigueros abadiñarrak Goierriko Ehun Milak proban bigarren txapela jantzi zuen. Triguerosek 2012tik hona bost garaipen lortu ditu Goierriin jokatutako Bi Haundiak eta Ehun Milak lasterketetan.

Lesio baten ondorioz azken ediziora bere sasoi punturik onenean heldu ez arren, bigarren sailkatuari bost orduko alde atera zion; 168 kilometroak 29 ordu eta 45 minutuan egin zituen.



Ina Olaizola



Mavi Garcia onenen artean Italiako Giroan

Kirola - DURANGALDEA

> **TXIRRINDULARITZA.** Bizkaia-Durango Mavi Garciak espero zuena baino maila hobea eskaini zuen Italiako bere lehenengo Giroan. Munduko duatloi txapelketan hirugarren egin ostean, Garciak 16. tokian bukatu zuen urteko itzulirik garrantzitsuenak. Talde durangarreko txirrindulariak emaitza "inondik inora" espero ez zuela aitortu zuen.


CERVECERA
GARAGARDOTEGIA



IBARRA BASERRIA
Ibarra auzoa z/g · ZORNOTZA

Egin zure erreserba:
946 731 100

Informazio gehiago:
www.ibarra-sagardotegi.com
www.ibarrabarria.eus
www.cerveceraiabarrabarria.eus



GARAGARDOTEGIA
Sagardotegiko betiko
menuez gain,
orain garagardotegiko
menua ere



Gerediaga-Elorrio zabaldu dute

📍 **Herririk herri** - DURANGALDEA

> **GARRAIOA.** Abuztuaren 8an zabaldu zuten Gerediaga-Elorrio autobidea. Bizkaiko Aldundiaren aurreikuspenen arabera, egunean 12.000 ibilgailu hartuko ditu 6,4 kilometroko errepideak, eta Gerediagatik Elorriora hamar minutu baino gutxiagoan heltzeko aukera ematen du. Errei bi ditu, 1.965 metro luze den tunel bat (Gazteluakoa) eta tunel faltsu bi. Imanol Pradales Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko diputatuak “au-

tobidea doakoa izatea eskualdeko lehiakortasunerako ona” dela esan zuen.

Hori esan izana kritikatu zuen EH Bilduk: “%40ko gainkostua izan du eta bizkaitarroi 1.400 milioi eurotik gorako kostua suposatuko digu”. Pradalesek “lanek eragindako kalteak” ahaztu dituela ere nabarmendu zuten, “aipagarrienak Gazteluaneta Atxondon izandakoak”. AP8agaz zuzenki lotuta dagoela ere gogoratu zuten.



Txakur bat abandonatuta aurkitu zuten pisu batean

📍 **Herririk herri** - DURANGO

> **GERTAERAK.** Artekalen zazpiegun eman zituen txakur batek, bakarrik, etxe barruan. Udaltzainek “txakur-kakaz beteta topatu zuten pisua, baina txakurren janari edo edari arrastorik ez”. Epaitegiaren esku utzi zituzten diligenziak. Durandog elkarteak ere arduratu zen haren egoeraz.



Geltoki zaharreko lurrak urbanizatzeko akordioa

📍 **Herririk herri** - DURANGO

> **AZPIEGITURAK.** Geltoki zaharreko lurzoru —60.000 metro koadro— urbanizatzeko hitzarmena iragarri du Jaurlaritzaren menpeko ETS enpresa publikoak. Eusko Jaurlaritzak udalaren esku utzi ditu lurrak, eta 7 milioi euro inbertituko ditu urbanizazio lanetan laguntzeko.



Astarloa eta Goitandia, DRTko mutilak gidatzeko

📍 **Kirola** - DURANGO

> **ERRUGBIA.** Durango Nissan Gaurisa Rugby Taldeko mutilen nagusien taldearen arduragaz jarraitu du Oskar Astarloak aurtan. Abuztuan, berriz, laguntzailer izango duena aurkeztu zuten: Kamen Goitandia. Errugbi ibilbide osoa Gernikan egin du zornotzarrak.



IZURTZA
UDALA

Tel.: 946 813 548
www.izurtza.net

24 etxebizitza berri hirigunean

sukia

2 logela 225.000€
+BEZ- tik aurrera

3 logela 290.000€
+BEZ- tik aurrera

DURANGO MONTEVIDEO



Garaje, trasteleku
eta pertsonalizazioa **BARNE.**

Informazio gehiago

946 462 041
www.sukia.com

 **sukia**



Eraso sexistak katean, eta erantzuna kalean

▣ **Herririk herri** - DURANGO

> **ERASO SEXISTAK.** Parrandan, parrandatik bueltan, etxean... Eraso sexistak katean etorri ziren abuztu amaieran eta irailean. Hamar egunean bost eraso salatu zituzten emakume durangarrek; bi Bilboko jaietatik bueltan gertatu ziren, beste bat hiriburuko jaietan bertan, eta beste bi herrian bertan bikotekideen partetik.

Hala ere, katea ez zen hor eten; irailerdian beste eraso bat publiko egin zuen

udalak, eta handik aste batzuetara, hainbat neskek, Rugby tabernan zeudela, AS Bayonne rugby taldekoen eraso sufritu zutela jakin zen. Jaien testuinguruan beste eraso bi salatu zituzten; ostean ere, gizon bat atxilotu zuten bere andrea jotzeagatik.

Herritarrak kalean

Eraso sexisten aurrean, erantzuna etorri zen, kalean. Izan ere, bolo-bolo ibili

zen gaia aste horietan. Herritar ugari batu zen mugimendu feministak deitutako elkarretaratzeetan. Bereziki jendetsua izan zen irailaren 1eko mobilizazioa, 200dik gora lagun batuta, *Nazkatute gauz, erasoen aurrean erantzun* lemapean burutu zena.

Udalak babesa erakutsi zien emakumei, eta lan egiteko deia zabaldu zuen: “Azken eraso hauek erakusten duten bezala, lan handia dago aurretik”.



Izaro abeslariak bere lehen diskoa kaleratu du

▣ **Kultura** - MALLABIA

> **MUSIKA.** “Lan itzela izan da, baina asko lagundu didate taldekideek”. Interneten eskegitako bideo baten arrakastagaz eza-gun egin, eta abeslari mallabitarrak bere lehen diskoa kaleratu du aurten. Irailan lan horren nondik norakoak azaldu zituen elkarrizketan. *Om* izeneko diskoa zaleen laguntzagaz atera zuen argitara; *crowdfunding* metodoa erabilita lortu zuen behar zuen finantziazioa. Gero, banaketa ere berezia egin zuen. “Diskoa kaleratuta, lagundu zidatenen etxeetara buzoirik buzoiz joan naiz, Bizkaia osoan zehar diskoa banatzera”, argitu zuen Izaro bakarlariak.

Kainabera elkarteak 20 urte, eta aurrera begira

▣ **Herririk herri** - ELORRIO

> **ELKARTASUNA.** 20 urtez mundua aldatzen dabilta Kainabera elkarteak. “Bakoitzak bere alea ipini, eta justizia lortzea da gure asmoa”, zioten elkarrizketan. Manolo Martinez irakaslea Kolonbiara joan zen, eta hantxe hasi zen Kainaberen istorioa, gero beste hainbat kausatara zabalduko zena. Kainaberen boluntario izanda mundua beste begirada batez ikusten hasi zirela azaldu zuen Inma Escribanok. “Konturatu ginen mundua konplexuagoa dela, eta ez direla behartsuak berez, guk pobretzen ditugulako baizik. Begiak zabaldu zitzaizkigun”.



“Gauetz trintxerak egiten genituen, eta egunez lo”

▣ **Berbaz** - IZURTZA

> **OROIMENA.** Jesus Uriarte izurtzarrak 100 urte bete zituen irailaren 12an, eta udalak omenaldia egin zion herriko jaien barruan. Gerra Zibilean parte hartutakoa da Uriarte. Ez zen “gogoz” joan gerrara, eta lanean eman zuen sasoi hori. “Langile taldeetan sartu gintuzten, frontean barik. Gauetz trintxerak egiten genituen, eta egunez lo”, esan zuen. Gerra galduta, frankistek lan batailoietan sartu zuten, libre geratu arte; anaia bi ere bazeuden han. “Hiruretatik bat libratuko zela esan ziguten, eta neu libratu nintzen. Etxean utzi ninduten, eta aitari eta amari laguntzen hasi nintzen etxeko lanetan”.



“Irain, ukitze eta bestelakoen festa”

Kirola - DURANGO

> **ERASO SEXISTA.** Irailaren 3an DRTk eta AS Bayonnek jokaturako partidu baten ostean, gauez, Rugby tabernan zeudean, talde lapurtarreko jokalaririk batzuen partetik eraso sexistak sufritu zituztela salatu zuten neska batzuek. Neskek klubari jakinarazi zioten gertatutakoa, eta honek babesa erakutsi zien. “Dantzan ari ginela hasi zen eraso, irain, ukitze eta bestelakoen festa...”, azaldu zuten neskek. Bayonneko presidentek erasoak gezurta egin zuten lehenik; ostean, baionarrak izan ziren Durangoko Udaletxean batzarraregitea eskatu zutenak. AS Bayonneko presidentea eta Baionako Udaleko zinegotzia izan ziren batzarrean. Barkamena eskatzeagaz batera, berandu erantzun dutela aitortu zuten. Erasoa jasandako neskei barkamen gutuna idazteko konpromisoa hartu zuten lapurtarrek.

Etxe, gustura bere bosgarren diskoagaz

Kultura - BERRIZ

> **MUSIKA.** Bost urte argitaratu barik egon ostean, bueltan da Etxe, *BiZi* diskoagaz. “Sentsazio oso onak izaten ari naiz: askok esan didate bazela sasoi, gogoia dutela disko berria entzuteko”.



Osasun zentro berria martxan, Zornotzan

Herririk herri - ZORNOTZA

> **OSASUNA.** Irailaren 2an zabaldu zuten Zornotzako osasun zentro berria, urte biko lanen ostean. Gainera, birgaitze gunea dauka, eta beste hainbat zerbitzu ere bai.

Zaldibarko eskolan, teilatua konponduta

Herririk herri - ZALDIBAR


> **OBRAK.** Lehen Hezkuntzako eraikinean hezetasun arazoak kentzeko asmoz, teilatua konpondu zuten udan. Arrakalak, itoginak... Hainbat arazo zituen partenoia lez ezagutzen den eraikinak, eta aurrean, gurasoen eta eskolako urtetako eskaria bete egin du Eusko Jaurlaritzak.



Urienen gazta, Bizkaiko onenen artean

Herririk herri - ABADIÑO

> **ABELTZAINZA.** Irailaren 24an Artzain Eguna ospatu zuten Axpen, eta Bizkaiko gazta txapelketa ere jokatu zen. Aitor Urien abadiñar gazteak hirugarren postua lortu zuen; Bizkaiko onenen artean dago, beraz.





Pilotalekuko artistaren agurra

✂ **Kirola** - BERRIZ

> **PILOTA.** Urriaren leian eskegi zituen praka zuriak, gerrikoa eta takoak. Pablo Berasaluzek urte askoko ibilbideari agur esan zion Bilbon jokaturako jaialdi handi batean. Hala ere, horren aurretik, hainbat despedida eduki zituen, hala nola Berrizen eta Iurretan. Irailaren 25ean izan zen Iurretakoa, herriko jaien barruan. Azken urteetan bertako pilotalekura lotuta egon da Berasaluze, eta herritarrek berotasunez hartu zuten Berrizko artista.

Izan ere, pilotari maitatua izan da Berasaluze. Txapel gutxi irabazitakoa da, baina pilotalekuan artista bikaina, partiduei grazia ematen dieten horietakoa. Pozik zegoen agurrean. “Joan naitzen frontoi denetan sentitu dut zaleen berotasuna; oso polita da”, azaldu zuen. Bere ibilbidea ere baloratu zuen aurrelariak. “1.000 partidutik gora jokatzeari 19 urteko ibilbide polit baten isla dela uste dut”. Pilotazaleek bere falta sentituko dute kantxetan.



“Indonesiako olatuaren modukorik ez dago”

✂ **Akuilua** - DURANGO

> **SURFA.** Bost urteaz hasi zen surfean Jokin Etxebarria, eta afizioari sendo eusten dio. AEBetako Vissla markaren Flow Team taldeko kidea da, free-surfilaria. Olatu berrien bila dabil. “Itsaso guztietan daude olatuak; hori bai, Indonesiakoaren modukorik ez dago hemen”.



“Zientziaren inguruan badago kultura bat”

✂ **Berbaz** - DURANGO

> **ZIENTZIA.** Zientziaren hedapenaren alde egin zuen Gotzone Barandika kimikariak, jardunaldi baten atarian. “Zientziaren inguruan badago kultura bat, eta interesa landu egin daiteke”, bere ustez.



Pasiotarren ikastetxeak 60 urte bete ditu

✂ **Herririk herri** - ZORNOTZA

> **URTEMUGA.** Euban, Orueko tontorrean, pasiotarrek ikastetxea zabaldu zuten duela 60 urte. Apaiztegia eta ikastetxe izan ostean, gaur egun Lauaxeta ikastola da. Frankismoa indarrean zegoen sasoiaren euskara lantzeko eta sustatzeko egindako lana da ibilbidearen ezaugarrietako bat.



EAJ izan da bozkatuena lehendakaritzarako

✂ **Herririk herri** - DURANGALDEA

> **HAUTESKUNDEAK.** Irailaren 25ean egin ziren Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan EAJ izan zen alderdirik bozkatuena Durangaldean. Iñigo Urkullu

lehendakariaren zerrendak 16.379 boto jasozituen, duela lau urte baino 722 gehiago.

EH Bilduk 2.388 boto behera egin zuen, bigarren indarra izaten jarraitu arren. Elkarrekin Ahal Dugu hirugarren indarra izan zen Durangaldean. PSE-EEK 2.482 boto gutxiago batu zituen, eta PPK 536 gutxiago.



Durangoko AEKren egoitza, Santanostera

✂ **Herririk herri** - DURANGO

> **EUSKARA.** Irailaren 22an AEKren egoitza berria inauguratu zuten Durangon, Santanosten hain zuten. Ekitaldira jende ugari joan zen; Mertxe Mujika AEK-ko koordinatzaile nagusia ere bertan izan zen.



Garraio publikoan, duintasuna helmuga

Herririk herri - DURANGALDEA

> **GARRAIOA.** 2016an garraio publikoagaz lotutako aldarrikapen ugari egon dira Durangaldean. Durango eta Gasteiz arteko autobus lineako kexek ez dute etenik izan;

A-8ko bidesarien gaiak eztanda egin du, eta Euskotrenek Berrizen eta Zaldibarren tarifa aldatu gura izanak herritarren protestak eragin zituen.

Euren aldarrikapenen berri eman zuten Nekane Rozasek, Juan Karlos Poderosok eta Alvaro Gutierrezek. Duintasuna dute helmuga.

Astxiki mendiko pagoa auzolanean jaso dute

Herririk herri - ABADIÑO

> **AUZOLANA.** Haizeak Astxikiko pagoa bota zuen, askorentzat berezia dena, Durangaldeko ikuspegiko elementu bitxietaiko bat da eta. Gaia bolo-bolo zabaldu zen Abadiñon, eta herritarrak ez ziren geldirik geratu. Auzolanean jaso zuten pagoa, deialdi zabal bat egin eta gero.

45 bat herritar igo ziren Astxikira, irailaren 24an. Lanari ekin zioten: arbola inausi pisua gutxitzeko, katu hidraulikoekin ahalik eta gehien zuzendu, sustrai ingurua garbitu, lurragaz bete... Soka bi adarretara lotu, eta tira eginda lortu zuten pagoa altxatzea.

Txaloka eta pozez hartu zuten lorpena, eta jan-edanagaz ospatu zuten, berriro etxerantz buelta hartu aurretik, Astxikiko pagoa zutunik utzita.



Ruben Abal, ETB1eko 'Ahoz Aho' saioan


Akuilua - BERRIZ

> **TELEBISTA.** "Bertigoa ematen du hasieran, baina, platoan oso babestua sentitzen zara". ETB1eko Ahoz Aho saioa aurkezle da Ruben Abal irailaz geroztik. "Produktu ona eta kalitatezkoa" egitea da euren helburua.

Castroviejok urrea Europako erlojupekoan

Kirola - ABADIÑO

> **TXIRRINDULARITZA.** Urte hasieran erri-kobatedukitzetik, Europako erlojupekoan txapeldun izatera pasatu da Jonathan Castroviejo. Gainera, garaipen handiagoak lortzeko ez du esperantza galtzen. "29 urte gaz, badut denbora bete-betean asetuko nindukeen garaipen hori lortzeko".



ekin S. Coop.

Arriagane Industrialdea (Boroa auzoa)

48340 AMOREBIETA

www.ekin.es



L.E.

Zebra-bideetan gertatutako istripuek kezka eragin dute

✂ **Herririk herri** - DURANGO

> **ISTRIPUAK.** Azkenaldian istripu ugari gertatu dira Durangoko zebra-bideetan, autoek oinezkoak harrapatuta. Azarora arteko datua kontuan hartuta, 2016an 16 harrapaketa jazo dira. Herriko trafikoa-ren abiadura orduko 30 kilometrora bajeatzea erabaki du udalak.

EAJ eta PSE-EEren gobernu taldearen arabera, ez da istripu igoerarik

egon, alderantziz baizik. 1992tik 2003ra 10.000 biztanleko 10,1 harrapaketa gertatu zirela dio gobernuak, eta 2004tik 2013ra 2,9 izan zirela batez beste. Gaur egun, 2,8koa ei da datua. “Egindako lanek emaitza onak eman dituzte, eta beste herri batzuentzat eredu gara”, gobernu taldearen iritziz. Euren ustez, istripurik gehienak despisteengatik dira.

Zebra-bideetako istripuen gaia osoko bilkurara ere heldu zen. Dani Maeztuk (EH Bildu) adierazi zuen “erabaki ona” izan zela trafikoa berrantolatzea, baina azterketa beharrezkoa dela. Julían Riosen (HE) iritziz, kontzientziazio kanpaina gehiago egin beharko liriateke.

Stop Accidentes elkarteak Rosa Trinidadek esan zuen “ikaratuta” daudela egoeragaz. Telefono mugikorraren erabilera ohartarazi zuen, eta argiztapena hobetu beharko litzatekeela ere adierazi zuen. Gainera, kontainerren kokapena berraztertu behar dela ere uste du Trinidadek.

‘Argi’ filma, ilusioz betetako estreinaldia

✂ **Kultura** - ELORRIO

> **ZINEA.** Elorrioren grabatutako Argi pelikula urrian egin zuen pantailarako jautzia. “Oso pozik gaude, bihotzetik egindako lana izan delako, asko eman dugulako”, adierazi zuen Iratxe Mediavilla zuzendari elorriarrak. Arriolan egin zuten estreinaldia, *photocall* eta guzti. Protagonistaren azalean sartu ziren June Gomez eta Sabina Aizpuru ere batu ziren elkarriketara.



L.E.

Brigada feministak, erasoen prebentziorako

✂ **Herririk herri** - DURANGO

> **FEMINISMOA.** Eraso sexisten aurka egiteko, brigada feministak osatu dituzte aurtengo San Fausto jaietan. Txosnagunean egin zituzten zaintza txandak, batzordearen eta Bilgune Feministaren ekimenez. Erasoen prebentzioa eta salaketa egitea zen euren funtzioa, eta jabeak ere bazegoen helburuen artean. “Erasoak prebenitzeko jarrera emakumeon jabeakuntzarako tresna bat dela uste dugu”, zioen Garazi Unzaluk.

Sanfaustoetako lehen gauean sexu eraso bat salatu zuen neska batek, eta azken gauean mutil batek neska bat jo zuen eztabaida baten ostean, biak taberna batean zeudela.



L.E.

Errotarikoak, 16 urtez perretxikoak batzen

✂ **Herririk herri** - DURANGALDEA

> **MIKOLOGIA.** Errotari elkarteak udazkenaz disfrutatzen ibili dira aurten ere. Perretxikoak batzen eta baita zaleei aholkuak ematen ere. Inguruko basoetako berba egin zuen Plácido Iglesiasek: “Durangaldean perretxiko espezie asko daude, arbola aniztasun handiagatik”. Talde mikologiko erreferentziala da Errotari, euren aldizkariagatik eta analisiengatik. Gaur egun 450 bazkide dituzte.



Biblioteka eraberritu ondoren, inaugurazioa

Herririk herri - IURRETA

> **INAUGURAZIOA.** Joseba Sarrionandiaren obra oinarri zuen *Garai Berri eta Garaizar* ikuskizun literarioa izan zen biblioteka eraberrituaren inaugurazioaren ardatz nagusia. Literatura, bertsolaritza, musika, kantua eta dantzak egin zituzten biblioteka berriaren irekiera ekitaldian. Herriko taldeek parte hartu zuten bertan. Biblioteka zerbitzua sei hilabetez etenda egon ostean, azaroaren 2tik aurrera ohiko ordutegian zabaldu zuten. Obra honegaz baliabideak optimizatzea eta biblioteka bera gaurkotzea izan dute helburu.

Hiru Haundiak probako hirugarren, 20 urte gaz

Kirola - ZORNOTZA

> **MENDIA.** “Buruogorra naiz, eta hori aldeko faktore bat da proba luzeetan”. Ander Gerrikaetxebarria zornotzarrak 20 urte baino ez ditu, baina ez da kikiltzekoa. Etorkizun oparoa duten Durangaldeko korrikalari gazteen beste adibide bat da. Hiru Haundiak proban hirugarren amaitu zuen, podiumera igota. “Nire buruarengan konfiantza itzela nuen, eta banekien lasterketa ona egin nezakeela”, adierazi zuen lasterketa ostean eginiko elkarrizketan. Aurretik, Gorbeia Suzien lasterketan seigarren postua lortu zuen, eta horrek konfiantza eman zion.



240 elkartetik gora eraso sexisten aurka

Herririk herri - DURANGO


> **ERASO SEXISTAK.** Udalak bultzatuta, eraso sexisten aurkako Herri Akordioa sinatu zuten urrian. 240 elkartek baino gehiagok sinatu zuten, batez ere jaietan prebentzioa eta salaketa egiteko asmoz. ANBOTOK ere bat egin zuen protokoloagaz.

Bestalde, Bilgune Feministak kritika egin zuen, moduengatik. “Nola deitu daiteke Herri Akordioa jaien bezperan e-mailez heltzen den dokumentua? Aurrelanketa behar du”, adierazi zuten.




ELORRIO


Urte osoko turismoa



Elorrioko Udala
 Herriko Plaza, 48230 Elorrio (Bizkaia)
 Tel.: 946 582 712
www.elorrio.eus • www.elorrioturismo.eus






Frades, odisea baten kronika

📍 **Kirola** - IURRETA

> **IRONMAN.** Gurutze Fradesek munduko ironman txapelketan parte hartu zuen, Konan (Hawaii). Bere ibilbideko sasoirik onenean heldu arren, ezin izan zuen bere onena eman. 33. tokiak ez du islatzen bere benetako gaitasuna. Sabeleko arazoak zirela medio, gorputzak ez zion erantzun probako zatirik handienean, eta ikaragarri sufritu zuen. Baina, “sekula ez naiz proba batetik erretiratu, eta Konakoa ez zen salbuespena izango”, dio iurretarrak. “Kirol honetan ondo hidratatu beharra dago,

eta, beharbada, bidoian neraman freskagarria asko mugituko zen bizikletan, eta apargehiegi edango nuen. Gorputzaren jarrera sarritan aldatzen eta elikagai solidoak jaten saiatu nintzen, baina goragalea ez zen joaten”.

Jarrera positiboari eutsi, eta bere ibilbideko sasoirik onenean dagoela uste du, baina horrelako erronka batek eskatzen duen makinaria guztia (babeleak, logistika...) berriro martxan jartzea konplikatua eta nekagarria dela dio Mugarra TTko kirolariak.



Delfin Zubizarreta

Frankismoaren biktimak gogoratzeko ekitaldiak

📍 **Herririk herri** - DURANGALDEA

> **OROIMENA.** Durangon eta Zaldibarren frankismoaren biktimak oroitu zituzten, ekitaldi bana eginda. Durango 1936 elkartearen eskutik, gerrako umeen testigantza plazaratu zuten Agurrik Gabeak ekitaldian. Gainera, hainbat testigantza jasoko dituen webgune baten iragarpena ere egin zuten antolatzaileek.

Horretaz aparte, frankismoan hildako zaldibartarrei omenaldia egin zieten, lehenengoz, Zaldibarren. Frontean, erbestean zein bonbardaketetan hildakoak ekarri zituzten gogora herritarrek. 80 urte bete ziren altxamendu faxistaren ondorioz Zaldibarko lehenengo biktima hil zela, Primo Bastida Garitagoitia milizia-noa, hain zuzen ere.



Aldundiari 1,3 milioi euro bueltatu beharra

📍 **Herririk herri** - DURANGO

> **DIRU-KONTUAK.** Aldundiaren zerga-bilketak ez da uste bezala joan, eta jasotako diru zati bat bueltatu behar izan diote udal guztiek. Durangoko Udalak, esaterako, 1,3 milioi euro bueltatu behar izan dizkio. Gaiak eztabaida eragin zuen osoko bilkuran, gobernuaren eta oposizioaren artean. Besteak beste, Zornotzako Udalak 855.000 euro bueltatu behar izan ditu.



Valladares, lurretako taldeko hesian

📍 **Kirola** - IURRETA

> **FUTBOLA.** Iurretako futbol taldeak gol bi bakarrik jaso zituen Liga hasierako sei jardunaldietan. Defentsako hesi horretako kide da Joseba Valladares gazte durangarra. Partiduez gainera, prestakuntzaz ere berba egin zuen elkarrizketan. “Ahalik eta ondoen egoten saiatzen naiz beti, entrenatutako moduan jokatzeko baita zelaian”, bere arabera. Konstantzia, azkartasuna eta baloia jokora ateratzeko gaitasunengatik nabarmentzen da.

Iurretakoren aurretik, Athleticen ere ibili da, esaterako. “Gertutik bizi izan dut Athleticen esperientzia; horrek lorratz ahaztezina uzten du”, gogoratu zuen.

Mangamoren, Pokemon Go! fenomenoari lekua

📍 **Herririk herri** - ZORNOTZA

> **TOPAKETA.** Manga mundua eta Japoniako kultura jorratzen dituen Zornotzako Mangamore jaialdiak hamarkada bat bete du aurten, urriaren 7tik 9ra. Aurtengo ekitaldi sorta oparoaren barruan, Pokemon Go! fenomenoari tokia egin diote. Esaterako, hainbat amu ipini zituzten Pokemonak harrapatzeko. Gainera, Pokemon munduaren arloko Folagor youtuberra izan zen gonbidatu etako bat.





“Zaharrek arreta gizatiarra merezi dute”

▣ **Berbaz** - DURANGALDEA

> **LAN GATAZKA.** ELA sindikatuak deituta, hiru asteko greba burutu zuten Bizkaiko zaharren egoitzetan, beharginen lan eskubideen defentsan. Ez hori bakarrik; badakite euren lanak pertsonengan eragiten duela. “Ratioek gure lan kargan eragiten dute, baina baita erabiltzaile eta senideengan ere. Zaharrek arreta gizatiarra merezi dute; ‘oraintxe noa’ esaten ibiltzeaz nekatuta gaude”, adierazi zuten Kontxi Rodriguez eta Geno Ereñaga grebalariek.



Marrazoekin bai, lehoi edo tigreekin ez

▣ **Akuilua** - DURANGO

> **URPEKARITZA.** Patxi Vidal ondarrutarra Durangon bizi da, eta urpeko argazkigintza du pasio. Orain 18 urte ikastaro batean parte hartu, eta “bidaia zoragarri” bat egin zuen Egiptoko Itsas Gorrira. Geroztik, hainbat lekutan ibili da bere kameragaz, eta marrazoak ere harrapatu ditu bere argazkietan. “Marrazoekin nagoen moduan ez nintzateke egongo lehoi edo tigre bategaz”, esan zuen elkarrizketan.



Otxandion bizi den kirol kazetari italiarra

▣ **Akuilua** - OTXANDIO

> **ELKARTASUNA.** Alessandro Ruta kazetari italiarra Otxandion bizi da iazko irailetik, eta Vulcano futbol taldeko bigarren entrenatzailea da. Italia erdialdea astindu zuen lurrikarako kaltetuei laguntzeko, *Amatriciana* solidarioa antolatu zuten Otxandion, bere eskutik. 7 kilo espageti egin eta 500 gramo bakarrik geratu ziren soberan; 443 euro batu zituzten.

IURRETAKO UDALA
 Tel.: 946 201 200
 www.iurreta.eus







L.E.

Esperantza eta bizi emaileak

✚ **Herririk herri** - DURANGALDEA

> **DONAZIOA.** Leuzemia edo odoleko minbizia duten pertsonen sendabiderako aukeretako bat da zelula amak transplantatzea. Zelulak hezur-muinetatik hartzen dira, edo txertoekin gorputzean barreiatu ostean odoletik atera. Gaixo askok ez dute emaile izateko senide bateragarririk edukitzen, eta pertsona anonimoen borondatearen esku gertzen dira. Emaile horietariko bi dira Izaro Martinez zaldibartarra eta Mikel

Gomez abadiñarra. "Egin behar dizutenaren inguruan ezjakitasuna dagoela igarri arren", emaile izatea gauza erraza dela diote, eta, zenbat eta pertsona gehiago egon prest, orduan eta probabilitate handiagoa dagoela gaixo batek emailea edukitzeko. Bestalde, bere neba Alain osatzeko, ezinbesteko izan zen Marta Prieto emaile durangarra. Zelula amak emateko baterarria izan zen, eta akordu hunkigarri eta gogorra bizirik du.



40 urteko kartzelaldira zigortu dute Quintairos

✚ **Herririk herri** - ABADIÑO

> **AUZIBIDEA.** 2014ko abenduaren 10ean Amelia Rodriguez amaginarreba eta M^aLuz Alejo emaztea hiltzeaz akusatutako Benito Quintairos abadiñarrari 40 urteko kartzela zigorra jarri dio epaileak. Indemnizazioak ordaintzera ere zigortu du.



Zaldibarko Enkajerek egindako xala, tonbolan

✚ **Herririk herri** - ZALDIBAR

> **ELKARTASUNA.** Ehoziri-lanagaz egindako xala egin dute Zaldibarko Enkajerek eta tonbola solidarioan egingo dute zotz. "Artisau-lan gisa" duen "balioa" nabarmendu du Bego Oiarbide irakasleak. 336 ordu baino gehiagoko lanaren emaitza da.



331 familiari eman die jaten JAED elkarteak

✚ **Herririk herri** - DURANGALDEA

> **ELKARTASUNA.** Aurten 331 familiari eman die jaten JAED elkarteak, euren baliabideekin ezin dutelako elikagai nahikorik erosi. Bestalde, argindarra eta gasa ordaindu ezin dituzten 71 familiak jasote probreziari energetikoari aurre egiteko laguntza ekonomikoa; guztira, 16.000 euro.



izei®

Zuekin 1980tik

FINANTZIAZIOA ZUEN NEURRIRA

www.izeidecoracion.com

AROTZERIA ETA EBANISTERIA
Ate bereziak, egile-oholtzak, beira-zuntzeko zoruak eta arotzeria oro har.

DISEINU ETA FABRIKAZIO PROPIOA
Sukaldeak, armairuak, bainugelak, logelak, gazteei zuzendutakoak, saloiak. Bulegoetako altzariak eta kolektibitateak.

ENPRESA HOMOLOGATUA
Polimeroen eta erretxinaren erabilera, HI-MACS® kasu, ezin hobea sukalde-gainekoetarako, bainugeletarako eta laborategi-mahaietarako, eta baita diseinuzko pieza berezietarako ere.

ERABERRITZEAK
Etxebizitzak, merkataritza-lokalak eta enpresak. Gremioen koordinazioa "obra giltza eskura".

Smurfit Kappa

Nervión

ISO 9001
ISO 14001
ISO 50001
PEFC
FSC



INGURUMENA
SEGURTASUNA
KALITATEA
BERRIKUNTZA
TEKNOLOGIKOA

Smurfit Kappa

Central Forestal

48 URTE
EUSKADIKO PINUDIAK ZAINTZEN

ARRIANDI AUZOA, z/g · IURRETA (BIZKAIA) · Tel.: 946 205 187 · Faxes: 946 205 194
centralforestal@smurfitkappa.es



Aldarri morez jantzitako lasterketa

📍 **Herririk herri** - DURANGO

➤ **BERDINTASUNA.** Azaroaren 25era begirako ekitaldien artean, I. Emakumeen Lasterketa antolatu dute Durangon. Kirola aldarrikapenagaz uztartu dute, eta indarkeriaren gaia gizarteratzeko, euren alea jarri gura izan dute. Durangoko Kirol Taldeko Goretti Etxegibel ekimena antolatzen aritu da, eta Gurutze Fradesek parte hartu du.

Lasterketa nagusian emakumeek bakarrik parte hartu dute, baina, aurretik, helburuagaz bat egiten duen edonori

irekitako lasterketa laburragoa ere antolatu dute. “Gizon zein emakume, denon erantzukizuna da indarkeriaren kontra pausoak ematea”, Etxegibekek azaldu lez. Triatleta iurretarrak, berriz, gai horretan “ahalik eta herritarrik gehien inplikatzeko” duen garrantzia azpimarratu du. “Gizarteko gaitz bat da, eta oso kontziente izan behar dugu denok. Batzuetan, urruneko gaia dela uste dugu, baina datuek erakusten dute ez dela horrela”. 2017an ere egingo dute.

Anfibioak babesteko guneak sortuko dituzte

📍 **Herririk herri** - OTXANDIO

➤ **INGURUMENA.** Durangoko Anbia 21 eta Aranzadi Zientzia Elkarteagaz batera, Mekoleta auzoan errekararen ondoko inguru batean bizi den anfibio komunitate “oso aberatsa” zaintzeko proiektu bat jarri dute martxan. Halaxe azaldu du Urtzi Armendariz alkateak. Anfibioak igel, apo eta euren antzeko ezaugarriak dituzten animalia multzoa dira, eta Europan espezie asko arriskuan daude euren gune naturalak desagertzen doazelako. Proiektuagaz 10 espezieren errehabilitazioan eragin gura dute; tartean, desagertzeko arriskuan den igel bizia deiturikoa.



Maider Undak agur esandio bere kirol ibilbideari

📍 **Kirola** - OTXANDIO

➤ **BORROKA LIBREA.** Hamarkada bitan borroka libreko erreferentea izan ostean, Mainer Undak amaiera ipini dio bere kirol ibilbideari. “Orain, borroka ez da nire lehen tasuna”. Halaxe azaldu zuen kazetariaren aurrean egindako agerraldian. Emakume moduan borroka librean egindako ibilbideagaz “oso harro” dagoela adierazi zuen. Urte asko eman ditu Undak borroka librean, Europako eta munduko txapelketetan eta Olinpiar Jokoetan parte hartzen, baina nahikoa dela esan du, beste lehen tasun batzuk ditu. “Rioko jokoetan egonda ere, ez nuen kirol bizitza askoz ere gehiago luzatuko”, esan du Goienak egindako elkarrizketan.

Jendaurrean aurkeztu dute Bilgune Feminista

📍 **Herririk herri** - ELORRIO

➤ **BERDINTASUNA.** Lehen pausoak ematen hasi da Elorrioko Bilgune Feminista. Azken bost urteetan herrian jardun duen talde feminista Bilgune Feministan sartu da, eta “indarberrituta” sentitzen dira. Indarkeria matxistaren kontra eta emakumeen ahalduntze pertsonal eta kolektiboaren alde lan egin gura duten emakumeei bertan parte hartzeko deia egin diete jendaurrean egindako aurkezpenean.



‘Euria’ antzezlanaren estreinatu du Markeliñek

📍 **Kultura** - ZORNOTZA

➤ **ANTZERKIA.** Galerei aurre egiteko gaitasunari buruzko *Euria* antzezlanaren estreinatu du Markeliñe antzerki taldeak. Ume zein helduentzat sorturiko obra berri honetako protagonista *Bo* pertsonaia da, *M* bikoteki-dea galdu duelako tristura kronikoan bizi dena. Ikuskizunak antzerkira doan umea eta antzokian alboan duen heldua heriotzaz, doluaz edota tristuraz berba egitera bultzatzea gurako lukete Markeliñekoek.



Baserrietako lanabes eta trepetxuak batu dituzte

Berbaz - MALLABIA

> **ARGITALPENA.** Mallabiko baserrietan gordeta egon diren garai bateko lanabes eta tresnak jaso dituzte *Baserriko lanabesak, tresnak eta trepetxuek*. Iragandako bizimodu baten lekuko liburuan. Justo Azagirre, Pello Mugarza eta Jesus Mari Uribelarrea aritu dira lan horretan, eta Gerediaga elkarteagaz elkarlanean kale-ratu dute. Mallabiko 15-20 bat baserrian egon dira, eta 300 bat objektu batu dituzte. Etxe guztietan banatu du liburua udalak.



Garbiren isurketak ikertzea eskatu dute

Herririk herri - ABADIÑO

> **INGURUMENA.** Abadiñoako Udalak Garbi galdategia ikuskatu dezala eskatu dio Eusko Jaurlaritzari. Muntzaratz auzoa hauts beltz batez kutsatu zuen isurketa Garbitik etorri zela jakinarazi du udalak, eta ikerketa abiatzeko eskatu diola Ingurumen Sailari. “Onartezina eta osasunerako kaltegarria da hauts hori eguratsera askatzea”, zioen Navarro alkateak prentsa ohar batean. Isurketen kaltea neurtu, eta dagozkion neurriak hartzea eskatu dio Abadiñoako Udalak Jaurlaritzari.

Udalak Azterlan enpresari eskatu zion hauts beltza nondik zetorren ikertu zezala, eta azterketa horren emaitzen arabera, Garbi da kutsaduraren eragilea.

“Euskal Herrian bakarrak gara domekero irteten”

Akuilua - ZORNOTZA

> **TXISTULARIAK.** Elkarte moduan 2000. urtean jaio zen Udazken txistulari elkarteak. Hala ere, ordurako urteak zeramatzaten domekero diana jotzen. Usadio hori berreskuratzeko udaletik egindako proposamenari heldu zioten txistularietako bat da Iban Ibarretxe. Udazken Barri erraldioen konpartsakako kide ere bada 16 urtez Danborradako zuzendari izandakoa.



MALLABIKO UDALA

Tel.: 943 171 461

www.mallabia.eus





Galder Gaztelu-Urrutia

Maiatzaren 7an galdeketak egingo ditu Gure Esku Dagok

Herririk herri - DURANGALDEA

> **HERRI GALDEKETA.** Erabakitzeke eskubidearen aldeko Gure Esku Dago dinamika estatus politikoaren gaineko herri galdeketak egingo ditu Durango, Zornotza, Elorrio eta Abadiño herrietan 2017ko maiatzaren 7an. Horrela, datorren urtean zehar Euskal Autonomia Erkidegoko zein Nafarroako beste 130 herritan egingo diren galdeketen parte

izango da Durangaldea ere. Herri galdeketa gauzatzeko protokoloak jasotzen duenari jarraituz, Durangon, Zornotzan eta Abadiñon sinadura bilketari ekin diote. Elorrioko taldea 2017an hasiko da lan hori egiten

Gure Esku Dago elkarteak herri galdeketen hiru uholde aurreikusten ditu 2017an. Lehenengoa martxoaren 19an

izango da, bigarrena maiatzaren 7an, eta azkena ekainaren 17an. Horrelaxe jakinarazi zuten, abenduaren 17an, Iruñeko Baluarte auditorioan datozen urteetara begirako 'Prest' ibilbide orria aurkezteko egin zuten agerraldian. Maiatzeko kontsulta sortak 85 herri batzen ditu, tartean Durangaldekoak daudelarik. Hiru uholdeak kontuan hartuta, 2017ko galdeketa egingo den udalerriri horietan 520.000 lagun bizi dira.

Era berean, 2019ko udaberrira artean hiriburuetan ere ikusi gura ditu galdeketak Gure Esku Dago-k, Baluartean azaldu zuten.

Ordezko pediatren faltan, zerbitzua etenda

Herririk herri - DURANGALDEA

> **OSASUNA.** Pediatría zerbitzurik barik egon ziren, joan den abenduko aste batean, Zaldibar, Berriz, Atxondo, Elorrio eta Abadiño Zelaieta auzoko anbulatorioetan. Durangaldeko lehen mailako osasun arretako arduradunek azaldu dutenez, aipaturiko bost osasun zentro horietan umeak artatzen lan egiten duten lau medikuetatik hiru falta izan ziren joan zen astean, eta ordezko bakarria etorri zen.



Katastroaren aldaketak nahasmena sortu du

Herririk herri - DURANGALDEA

> **KATASTROA.** Katastroaren aldaketak Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan aldaketak eragin ditu. Herri askotan zergaren igoerak zalaparta sortu du. Durangon, esaterako, udalaren hasierako aplikazioan aldaketak egin dituzte. Aramotzeko eta Alde Zaharreko bizilagunek, besteak beste, hainbat kexa helarazi zituzten plenora. Hainbat herritan udalak batzar informatiboak egin ditu herritarrekin. Otxandioko udalak, esate baterako, kultur etxean egindako herri batzarrean 200 lagunetik gora batu zituen. Udal ordezkariek katastroaren eguneraketako prozesua zelan eman den kontatu zuten, eta herritarren dudak argitzen saiatu ziren.



Ikusleak parte-hartzaile bihurtu dira azokan

Herririk herri - DURANGO

> **KULTURA.** 'Bizitzekoa DA!' izan da aurtengo Durangoko Azokaren leloa, eta helburu hori bete egin dela azpimarratu du Nerea Mujika Gerediagako presidentek balorazioa egiterakoan. "Gero eta gehiago, bisitariak ikusle izatetik parte-hartzaile izatera igarotzen ari da". Bisitariak kopuruari dagokionez, iazko datuak errepikatu direla azaldu du Mujikak. Ikasle Egunak izan duen indarra ere nabarmendu du.



Durungaldea kolonizatu du asiar liztorrak

Herririk herri - DURANGALDEA

> **INGURUMENA.** 2015ean Bizkaiko suhiltzaileek asiar liztorraren 1.800 habia kendu zituzten. Aurten, berriz, 300. 2016an, Bizkaiko Foru Aldundiaren protokoloa martxan jarri ostean, Basalan enpresak asiar liztorraren 2.600 habia kendu ditu. Asiar liztorren ziztadek alarma soziala piztutuden arren, erleen pozoia liztorrena baino kaltegarriagoa dela dio Iñigo Mendibil suhiltzaile atxondarrak. "Gertatzen dena da liztorrak pozoi kopuru handiagoa duela eta eztena luzeagoa duela; 7 milimetro eztena dute, eta erleek 2koa".

Aramotzen auzoaren egoeraz kezka dira

Herririk herri - DURANGO

> **AUZOAK.** Abenduko asteburu batean auzolanean egindako garbiketarak erakutsi zuen lez, Aramotzeko herritarrek kezka dituzte auzoaren egoeraren inguruan. Fumbarrik isurtzen duen keaz kezkatuta daudela esan dute, nahiz eta kutsadura mailaren neurriak eduki ez. Era berean, auzoan txaboletan ere bizi da jende bat duela 8 urtetik hona, eta horrek konponbide bat behar duela uste dute. Bestalde, auzoa eraberritzeko azterketa garatzen dabil udala, eta prozesu horretan herritarrek ere parte hartzea gura dute.



Gabonetako loteriako sari nagusia Abadiñora

Herririk herri - ABADIÑO

> **LOTERIA.** Matienako hainbat etxetan gabon bereziak ospatuko dituzte aurten. Izan ere, 66513 zenbakiak Abadiñoko auzo horretara eraman zuen sari nagusia abenduaren 22an egindako loteriaren zozketan. Hiru administrazioak saldutako 50 txartelen artean, 20 milioi euro jaso zituzten. Madrilgo administrazio batetik ekarritako 5 serie izan ziren sarituak. Xanpain botila eskuan, albistea ospatu zuten loteria administrazio bulegoan.

ZARATE ELEXPE

ERAGILEAK

KONTSULTATU BESTE AUKERAK IURRETAN, ELORRION ETA DURANGON



Etorri ikustera!



KAFE ANTZOKIA - MONTEVIDEO
 Durangoko herrigunean
 Energia eraginkortasun handiko etxebizitzak
 Hiriko txaletak
 Oiz mendira begiratokiak
 Leku zabalak

www.zarateyexpe.com - Tel.: 946 816 673



Goi-mailako
elikagaiak
Alimentos de
calidad superior

gurearen zaporea



Eusko Labelek marka ziurtatuko kalitate goreneko eta zapore bikaineko produktuak eskaintzen dizkizu.


Gure baserriarrek eta arrantzaleek gure lurraldeko onena ateratzen dute zuretzat. Euskadin ekoiztutako, eraldatutako eta/edo landutako nekazaritzako elikagaien produktuak.

Eusko Label erosita kalitate gorenekoa eskuratzeaz gain, gure ekonomia, gure lehen sektorea, gure paisaia eta gure kultura iraunarazten ere laguntzen duzu.

Gureak ematen duen gozamena.

hazi

LANEA, ERASOTZE ETA ERASOTZE BERRIRAKO
BERRIRAKO ERABILTZE, 17/2004, 17/2004/2004



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO VASCO
DEL ECONOMÍA Y DELA
DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA Y
COMERCIO